




Loinatz jaiak Beasainen

Legorreta ere
jaietan

Bai Euskarari
akordioa
Ordizian

Idea
berriztatzaileen
lehiaketa



**VAC
VAC**



BERTAN^{s.L.}

EGUR BILTEGIA

VACSOL - WR[®] TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA



PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN



Eragilea:
ARIN ERAIKUNTZAK S.L.

Informazioa eta Salmenta:

943- 49-38-73

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko Ingurua

ETXEBIZITZA ADOSATUAK (SEGURAN)



arquimedia

Non zer

3: HAMABOSTALDIAN

NABARMENDI: Bai Euskarari akordioa Ordizian.

6: Ideia berriztatzaileen V. sariketa

10: AHOLKUA: pentsioen gaineko akordioa

11: KATE MTZEAN: Kate motzean.

12-13: Beasaingo jaiak

14-15: Xabier Mendiguren: 'Errekarteko koaderno'

16-17: Graffiti erakustaldia Beasainen

19: Legorreta jaietan

20-34 KRONIKAK

LEGORRETA,
ORMAIZTEGI,
ALTZAGA, MUTILOA,
LAZKAO, ITSASONDO,
SEGURA, BEASAIN,
GABIRIA, ZERAIN,
ZEGAMA, ORDIZIA, ATAUN,
IDIAZABAL ETA ZALDIBIA.

35: Goierriko euskara (eta II)

36-37: KILOMETROAK 2001

38-39: KIROLA: Aritz Zumeta arkularia

40: KIROLA: Mikel Gaztañaga txirrindularia

46: FOTO ZAHARRA: XX. mende hasierako beasaindarrak.



Udala, gizarte eragileak eta euskalgintzako taldeak bat-eginik

Bai Euskarari akordioa Ordizian

Ordizian euskararen normalizazioa sustatu eta bultzatzeko, Ordizian euskaraz bizi izateko helburuarekin, Bai Euskarari akordioa garatzeko plana abian jarri da Ordizian. Euskararen Kontseiluak gidatuko du egitasmoa, eta Ordiziako Udalak, euskalgintzako taldeek eta gizarte eragileek, bat egin dute helburu eta planarekin.

Jarraipen batzordea prest dago, planaren segimendua egiteko. Euskadiko Kutxako Joxe Mari Larrañagak, AEK-ko Aitor Calvillok, Goierri Lanbide Eskolako Joxe Mari Ormazabalek, Hitzaroko Ainitze Etxeberriak, Euskal Herrian Euskarazeko Lierni Iztuetak, Musika Eskolako Oñeka Garmendiak eta Udaleko, Alejandra Iturrioz, Joxe Arizmendi eta Mikel Iturriozek osatuko dute Jarraipen batzordea. Zuzendari teknikoa Mikel Leunda izango da eta Kontseiluko ordezkaria, Ainhoa Beola.

Bi teknikari arduratuko dira erakundez erakunde eta elkarte datuak bil-tzeaz, erakunde bakoitzaren diagnosia eta hausnarketa egin eta euskararen erabilera areagotzeko helburuak zehazteko. Bakoitzak bere neurriko ekintzak zehaztuko ditu, bakoitzaren helburuak lortzeko. Euskararen erabilera areagotzeko plan honetan sartzea ala ez, bakoitzak erabakiko du. Beraz, ordiziar-rrak gonbidatu nahi dituzte, euskararen erabilera areagotzeko konpromezua hartzera.

5.500.000 pezetako aurrekontua du plan honek eta Udalak oso-osorik hartu du beregain.

Hurrengo alean izango dugu Bai Euskarari akordioaren berri zehatzagoa, Jarraipen batzordea osatzen duten hainbat kideren iritziekin batera.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com


Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Pako Zubeldia, Mari Flor Mendizabal, Nagore Etxeberria, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua eta Irene Hurtado.

Azaleko argazkia: Mikel Albisu

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



*Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria*

Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan EAJ-EA irabazle

Maiatzaren 13an izan ziren Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan, Goierriin, EAJ-EA koalizioa izan zen nagusi, EAEn bezala. 14.142 goierritarren botoak jaso zituen EAJ-EAk. 1998ko Legebiltzarreko hauteskundeetan bi alderdien botoak batuta baino 3.487 boto gehiago jaso dituzte. Goierriko herri guztietan izan da gainera garaile.

EH izan da botorik gehien eskuratu dituen bigarren alderdia: 5.589 boto. 98an baino 2.209 gutxiago. PSE-EE eta PP paretsu ibili dira. PSE-EEK 3.122 boto eskuratu ditu (98an baino 350 boto gehiago) eta PPK 3.078 (98an baino 606 gehiago). EB-IUK, azkenik, 1.084 boto lortu ditu, 98an baino 203 gehiago. 33.133 goierritarrek zuten botoa emateko eskubidea. Abstentzioa %15,79koa izan zen (98an %26,15).

HERRIA	ERROLDA	ABST.	98an	EAJ/EA	98an	EH	98an	PSE-EE	98an	PP	98an	EB-IU	98an
ALTZAGA	82	%14,77	%32,93	41	16	34	38	0	0	0	0	0	0
ARAMA	136	%15,44	%22,22	67	47	40	58	2	2	5	2	1	2
ATAUN	1.371	%13,57	%19,11	668	518	460	575	15	10	10	10	30	10
BEASAIN	10.124	%18,86	%27,16	4.064	3.092	1.039	1.653	1.377	1.220	1.229	948	394	329
EZKIO-ITSASO	478	%13,60	%21,08	231	174	170	183	2	1	5	7	4	1
GABIRIA	351	%8,83	%16,53	244	201	64	91	0	2	9	6	2	1
GAINTZA	110	%18,18	%27,68	59	42	23	37	1	0	5	1	0	0
IDIAZABAL	1.723	%15,21	%24,26	1.002	762	310	345	42	31	77	93	21	15
ITSASONDO	506	%17,00	%24,58	229	151	148	205	15	19	17	21	8	8
LAZKAO	4.021	%19,17	%25,79	1.448	1.096	739	967	433	396	453	328	135	121
LEGORRETA	1.149	%17,23	%23,51	524	425	182	277	100	105	102	73	25	16
MUTILOA	136	%23,53	%35,66	67	55	30	34	1	0	2	1	2	0
OLABERRIA	830	%17,95	%28,88	300	217	106	159	120	111	117	100	27	29
ORDIZIA	7.544	%18,96	%26,27	2.775	2.085	1.070	1.576	909	791	906	755	365	301
ORMAIZTEGI	965	%11,30	%16,58	573	470	205	265	26	13	30	35	20	15
SEGURA	1.019	%11,97	%16,50	619	489	216	310	20	9	30	24	8	10
ZALDIBIA	1.269	%19,15	%24,06	457	245	441	610	50	54	49	50	25	18
ZEGAMA	1.104	%12,05	%21,40	655	479	254	357	9	8	31	35	14	3
ZERAIN	209	%13,40	%19,79	119	91	58	58	0	0	1	2	3	2
GUZTIRA	33.133	%15,79	%26,15	14.142	10.655	5.589	7.798	3.122	2.772	3.078	2.472	1.084	881

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta

Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN

BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA

Loinazko San Martin plaza

Tel: 943 02 81 05



Ikasle berrientzako matrikula epea:

maiatzaren 30etik ekainaren 8ra
9:00etatik 13:00etara eta
16:00etatik 19:00etara

Informatika musikala, instrumentu
aukera zabala, gazte eta helduentzako
musika lengoaia, 5 eta 6 urteko
haurrentzako tailerra besteak beste

PLAZA MUGATUAK

Izenemate ordena errespetatuko da



Sasieta sariak

Sasieta Mankomunitateak ikastetxeen artean antolatutako kartel eta jostailu lehiaketan sari-banaketa egin zen maiatzaren 18an, Beasaingo Udaletxeko Batzar aretoan. II. Kartel lehiaketa (Lehen hezkuntzako 6. mailakoen artean egingakoa), Zumarragako La Salle-Legazpi ikastetxeak eta Urretxu-Zumarraga Ikastolak irabazi dute. V. Jostailu lehiaketa (DBH 1 eta 2koen artean egingakoa), Beasaingo Ikastolak irabazi du. Guztiak elkarrekin, Bidarraira joan dira txangoan, rafftinga egitera, gaur bertan.

Sariak ematen, Jon Lizarralde Kutxako ordezkaria, Peio Garaialde Sasieta Mankomunitateko lehendakaria eta Aitor Gabilondo Zumarragako alkatea izan ziren.

Bertsolari txapelketa Nagusia

Aitor Sarriegi eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarrek eta Joxe Munduate ataundarrak, Euskal Herriko Bertsolari txapelketa jokatzeko txartela lortu dute, Gipuzkoan kanporaketa jokatu ondoren. Udazkenean jokatu da txapelketa nagusia. Ekaitz Goikoetxea, lehenengo aldia izango du txapelketan honetan, dagoeneko adinez nagusia baita. Udazkenean izango dugu berri gehiago.



Katalanak Goierriin

Maiatzaren 10etik 13ra, Bartzelonako Euskal Etxeko ardura-duna eta El Periodico egunkariko kazetari bat, Gipuzkoa ezagutzen izan ziren. Goierri ere ezagutu zuten, noski. Otzaurten harrapatu genituen eta horra hor, argazkian, Goierriko turismo ordezkarien ondoan.



Erreibindikazioa

Goierriin kenduak izan diren "130 falanjisten plakak" azaltzen diren argazkia iritsi zaigu GOIERRITARRA aldizkarira. "Gaitibu gaituzte gure herrian, katez eta sokaz, baina askatuko gara, apurtuko ditugu loturak, hautsiko ditugu sokak. Sinbologia zapaltzaileak suntsitu, matxinatu, desobeditu... Bizi nahi dugulako Euskal Herria intsumitua", dio erreibindikazioak

NAGASAKI Taberna

Sartu zure giroan!

☎ 943 88 15 67

J. M. Iturrioz BEASAIN



Gurutze-puntua, puntu
erdia eta artiletan
berezitasuna
Gai hauen ikastaroak
ere ematen dira

Bordatuak eta arropa
konponketak

Beasaingo Jaietan laboretako erakusketa

Oriamendi, 19 ☎ 943 16 23 84 BEASAIN



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbkl. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



OIHALAK
KILOKA eta
METROKA
Jantziak neurrira - konponketak
Gortinak, edredoiak, toailak,
mozorroak...

☎ 943 02 75 06

San Inazio, 6 BEASAIN

LARRAITZ

Lurrindegia
Opari gaiak

Oriamendi Kalea ☎ 943 88 33 02
BEASAIN



Festak ondo pasa!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN

Goiekik antolatuta, enpresa berriak sortzeko helburuarekin

Idea berriztatzaileen V. sariketa

Idea eta proiektu berriztatzaileak bultzatzeaz gain, sustatzailearen irudia babestea da Goiekik antolatutako Idea berriztatzaileen V. sariketaren helburua. Honela, enpresaren egitasmo berrien garapena erraztuz eta era berean lanpostuak sortuz. Ekainaren 30ean amaitzen da eskaera orria aurkezteko epea.

Enpresa berria sortzeko ideia berriztaileren bat baldin baduzue, Idea berriztatzaileen V. sariketa duzue eskura, Goiekik antolatuta. 1.500.000 pezeta edota 500.000 pezeta irabaz ditzakezue. Enpresa kokatzeko urtebeterako pabilioia ere izango zenukete. Horrekin batera, enpresa bera sortzeko laguntza guztiak. Baldintza bakarra, enpresa Goierri kokatzea da.

Ekainaren 30ean amaitzen da eskaera orria aurkezteko epea. Uztailaren amaierarako bukatu beharko da proiektua eta irailaren bukaeran jakinaraziko da epaia.

Bosgarren ediziora iritsi da dagoeneko Goiekiren Idea berriztatzaileen sariketa. "Azkeneko bi urteetan proiektu gehiegirik ez da aurkeztu. Baina proiektu nahikoa landuak izan dira. Saritutako



proiektuak martxan daude. Saririk jaso ez duten hainbat proiektu ere martxan dira, interesgarriak ikusi baitira. Proiektua garatzeko laguntza ber-berak izan dituzte", esan digu Iker Galparsoro Goiekiko Inkubategiko arduradunak. Iaz 26 enpresa sortu ziren Goiekiko inkubategitik. Normalean sortzen diren enpresak txikiak izaten dira.

Dirua eta pabilioia

Aurten diru kopuru handiagoa jarri dute sarituentzat. Lehenengoari 1.500.000 pezeta emango zaizkio eta bigarrenari 500.000. "Lehenengo edizioetan dirua bakarrik ematen genuen baina orain urtebeterako pabilioi bat ere uzten zaie, jendeak kanpotik etorri behar baldin badu, kokagune bat eduki behar delako. Azken batean helburua, enpresak Goierri bertan sortzea baita".

Goierriko enpresek finantzatzen dute sariketa. Epaimahaia Goierriko enpresetako ordezkariak, txandaka, eta Goiekiko teknikariak osatzen dute.

Baliabide guztiak eskura

Proiektua garatzeko baliabideak ere ematen ditu Goiekik. Inkubategiko baliabide guztiak izango dituzte eskura irabazleek: telefonoa, faxa, ordenagailua... dena dohainik. Bideragarritasun plana bertan egiten da. Kutzarekin hitzarmena du Goiekik, maileruak %2ko interesekin lortzeko. Dirulaguntzak ere tramitatzen dituzte. Lehenengo urtebeteko aholkularitza ere dohainik izaten dute.

Beraz, lerro hauetatik, ideia berriak dituztenak gonbidatu nahi dituzte lehiaketan parte hartzera.

Goierri 2005 Idea berriztatzaileen V. sariketa

⇒ Nori zuzendua

Idea berriztatzaile eta bideragarri batetik abiatuz, Goierriko eskualdean enpresa berri bat antolatzeko borondatea duten pertsona fisikoei.

⇒ Sariak

1. saria: 1.500.000 pezeta proiektua martxan jartzeko momentuan + pabilioi industrial bat lehenengo urterako.

2. saria: 500.000 pezeta + pabilioi industrial bat lehenengo urterako.

Idea hoberenentzako Enpresa kudeaketan heziketa eta Goiekiko enpresaren inkubategian proiektua garatu ahal izateko laguntza.

⇒ Epeak

Goierri 2005 Idea Berriztatzaileen sariketan parte hartu nahi baduzu, deitu ezazu Goiekiko 943161831 telefono zenbakira eta informazioa zaituz, izen-emate orria jasoaz. Ekainaren 30era arte dago orriak jasotzeko epea.

Web orria: www.goierri.org

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak filtroak, olioak, engraseak, frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak, harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57


HERBALIFE

Pisua kontrolatu eta larru azalaren zainketan berriena
Kontsulta dohainik eta etxean entrega


Deitu zure banatzaile independenteari
☎ 943 884 560 ☎ 943 2881 260 ☎

BABESLEAK:


ACERALIA ARISTRAIN.
ALUMINOX, S.L.
AMPO, S.COOP.
ATENCIONES MET. UR-
BASA, S.A.
CAF, S.A.
CONS. ELECTRICAS
DE GIPUZKOA
CONS. METALICAS
IZAR, S.L.
EDERFIL, S.COOP.
EREDU, S.COOP.
ESTANTERIAS
EUN, S.A.
FORJAS ALBISU, S.A.
FORJAS IRIZAR, S.L.
FUNDICIONES DEL
ESTANDA, S.A.
FUNDICIONES
HIRIBARREN, S.A.L.
GOHIERRI, S.A.
GUERRA HNOS, S.A.
HINE, S.A.
INDAR, S.A.
INDUSTRIAS LANDU,
S.COOP.
IRIZAR, S.COOP.
JASO EQUIPOS DE
OBRAS, S.A.
KENDU, S.COOP. LTDA.
KRANE, S.COOP.
LOGOS, S.COOP.
ORDIZIAN ELKARTEA
ORKLI, S.COOP.
OXIMEK, S.L.
PINGON, S.COOP.
PRAXAIR, S.L.
PRODEMA, S.A.
TALLERES JASO, S.A.




G
O
I
E
R
R
I



IDEIA BERRIZTATZAILEEN V. SARIKETA



2
0
0
5



ANTOLATZAILEA:



KOFINANTZIATUA:



EL DIARIO VASCO



EUROPAR BATASUNA
Europako Fondo Soziala

DIRU SARIAK ETA IDEIA MARTXAN JARTZEKO LAGUNTZAK
DEITU ETA INFORMA ZAITEZ: Telf: 943 16 18 31 EKAINAK 30 arte.

BEASAINGO LOINATZ JAIK



**BEASAINGO
UDALA**

Agurra:

Aurtengo Loinatzak ere iritsi zaizkigu, gure Loinatz jai maitagarriak alegia. Beste urtebete pasatu ondoren, denok dugu gure eguneroko lanetan geraldia egin eta elkarrekin festak ospatzeko gogoia eta beharra.


Mariren jaitsierarekin hasi eta dantza libreko lehiaketarekin bukatuko diren ekintzen artean, etengabeko ospakizunak eta entretenimenduak eskaintzen dizkigun egitaraua dugu, eta ziur nago egitarau horretan, zeuon gustuko dituzuen ekitaldiak aurkituko dituzuela.

Denon artean, ospa eta goza ditzagun aurtengo Beasaingo Loinatz jaiak gerorako oroigarri atsegina utziz; errespetuz, pozez eta gurekin egoterik ez dutenak gogoraturaz.

Mila esker aurtengo jai hauek antolatzen lagundu diguzuen elkarte eta pertsona guztioi, egitarau anitz eta erakargarri hau, zuei esker egin ahal izan baita.

Beasaingo gure Loinatz jaiak gurekin ospatzera eta gozatzera zatozten guztioi, gure ongi etorria. Beasaindar guztioi berriz, adorea eta kemen eman nahi dizkizuet festetan ongi irauteko.

Jon Jauregi Bereziartua
Beasaingo Alkatea



orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

Proiektua honetan datza: (1) gizarte mugimendu honek eskura dituen baliabide guztiak eskaintzea (2) 2001. urtean zehar indar politikoen artean elkarrikeria-prozesu bat bultzatzeko metodologia ireki, malgu eta eraginkor batekin (3) barne eta kanpoko laguntzaile-sare sozial baten babesarekin eta (4) behar adinako laguntza moderatzaile eta erraztailea izango duena. Gaur egungo blokeo egoera gainditzeko alternatibak eta aukerak eskainiko dituen Bake Konferentzia bat antolatzearen inguruan gizarte eta politika mailako bat-egite dinamika bat bultzatu nahi dugu.

Zergatik

Erantzuna ematea beharrezkoa delako eta aukera eraikitzaileak sortu behar ditugulako. Bake Konferentzia bat bultzatzeak bakeari aukera ematea esan nahi du. Erantzunik eman gabe gelditzen bagara eta aukerak sortzen ez baditugu, bakea nekez lortuko dugu. Hemen, planetaren beste tokietan bezala, Bake Konferentzia gauzak positiboki eta guztien artean aldatzen hasteko aukera bat da.

Zein helburu ditu

● Aurrerapauso garrantzitsuak lortzea bake-prozesuan

eta normalizazio politikoan: elkarlanerako giro eraikitzaile ahalbidetu, eta bake-prozesuarentzat printzipio eta prozeduretan adostasun bat lortzen saiatu.

● Bakea lortzeko eta elkarbizitza politikoaren arazoei konponbidea emateko gizarte bultzada garrantzitsua eman: gizarte itxaropena mobilizatu eta gizarte zibilaren ahaleginen topagunea lortu.

Zein ezaugarri edukio ditu

● Bi fasetako proiektua. 2001eko lehen seihilekoan Prestakuntza Faseari ekingo diogu eta bigarren seihilekoan Garapen Faseari.

● Gizartearen babes aktiboa edukiko duen proiektua. Lehen fasean proiektuak hurrengo eskatzen du: 3.000 kolaboratzaile, 40.000 atxikimendu inguru, gizarte mobilizazioa eta atzerriko izen handiko entitate eta pertsonalitateen laguntza kualifikatua duen kolaboratzaileen sare bat.

● Esperientzia duten pertsonalitate eta entitateen laguntza erraztailea eta moderatzailea izango duen proiektua.

Garapen Fasean proiektuak aholkulari, moderatzaile eta txostengile funtzioak asumituko duen pertsona independente eta anitzen talde bat beharko du.

● Metodologia bereziarekin eta inor ez baztertzeko irizpidearekin. Bake Konferentziaren metodologia malgua izango da eskaeretara eta egoeretara moldatu ahal izateko eta une guztietan indar politikoen arteko eta talde moderatzaileen artean adostasun handiena lortzea izango du irizpide.

Elkarrik hartzen duen konpromisoa

● Elkarrik proiektu hau bultzatzeko xede tinkoa du. Honek ez du esan nahi gizarte mugimendu honek Bake Konferentziaren antolatzaile bakarra edo ezinbestekoa izan behar duenik. Berak bakarrik, besteekin elkarlanean; edo beste entitate batek antolatuz gero, laguntza eskainiko lioke.

● Elkarrik 3.000 kolaboratzaile, 40.000 atxikimendu inguru, atzerriko laguntzaileen sare bat eta Bake Konferentziaren aurrekontua finan-

tzatzeko 85 milioi lortzeko beharrezkoak diren lanak jarriko ditu martxan. Gizarte mugimendu honek hasieran 10 milioi aportatuko ditu.

● Elkarrik aholkulari, moderatzaile eta txostengile funtzioak asumituko dituen taldea osatzeko entitate eta pertsonalitateekin kontaktuak koordinatuko ditu.

● Elkarrik Bake Konferentziaren azken diseinua adosteko indar politikoei elkarrikeria errondak egingo ditu.

Eskatzen dizugun kolaborazioa

● Proiektu hau martxan jarri ahal izateko Bake Konferentziaren kolaboratzaile bezala zure izena ematea eskatzen dizugu 902421010 telefonora deituz. Proiektuaren kolaboratzailea izatea 2001eko apirilaren erditik eta ekainaren amaiera bitartean egin dezaitezun lan bat burutzea eskatzen du bakarrik. Proiektu honetara bere sinaduraren bidez atxikitu eta 1.000 pezetako diru-laguntza emateko prest dauden hamar pertsona aurkitzea hain zuzen. Gainera, kolaboratzaileek aldiro prozesuaren informazioa jasoko dute eta akreditazio bat ere bai, eskaini duten laguntza eskertzeko.

Elkarri

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea **ORDIZIA**

RUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

Domingo Unanue plaza, 2 behea
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

Apiriletik ekainera
errenta aitortpenak
egiten dira

ORDIZIA
9:00etatik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia



**Peio
Barandiaran**
(Gertu
aholkularitza)

Pasa den Apirilean, "Toledo-ko Ituna" deitutakoaren ildo-
tik, Segurtasun Sozialaren
Garapenerako akordioa sinatu
zen. Akordio honetan gai uga-
ri jorratzen badira ere, garran-
tzitsuenei aipamen berezia
egingo diegu ondorengo le-
rootan.

Jubilazio pentsioa

Arau orokor bezala, 65 urte-
rarte ez da jubilatzerik izango.

Gobernuak ordea, 65 urte-
tik aurrera jendeak lanean ja-
rraitzeko aukera izan dezan
hainbat neurri hartuko ditu;

- Partzialki jubilatuta eta lane-
an jarraitzeko aukera izango
da.

● 65 urtetik gorako langileak
segurtasun sozialeko kotiza-
ziorik ordaindu beharrik ez du
izango.

● 65 urtetik aurrera lanean ja-
rraitu eta 35 urte baino gehia-
go kotizatuak dituenak, % 100
baino gehiagoko pentsioa ja-
sotzeko aukera izango du.

65 urte baino lehenago ju-
bilatu nahi izanez gero berriz,
orainarte bezala 1967 ko urta-
rrilak 1 a baino lehenago erre-
gimenen batean kotizatu duen
edonork aukera izateaz
gain, urte honen aurretik koti-
zatu ez dutenek ere aukera
izango dute jubilatzeke, ondo-
rengo baldintza hauek bete-
tzen dituzten neurrian.

● Erregimenen batean 30 urte
gutxienez kotizatuak izatea

● Lan-uztea langilari atxiki
lekioken arrazoirien batenga-
tik ez izatea.

● Gutxienez 6 ilabete lan-es-
katzaile moduan INEM - en
egotea.

Kasu hauetan ere 1967 urte
aurretik kotizatuak dutenek be-
zalaxe pentsioa % 6 eta 8 arte-

Pentsioen gaineko akordio berria

an murriztuko da, jubilazio-
adina 65 etik aurreratzen den
urte bakoitzagatik.

Alarguntasun pentsioa

Gaur egun, pentsio hau % 45-
ean dago. Pixkanaka-pixkana-
ka % 52 ra igotzea aurreikus-
ten da akordio honetan. Era
berean, alargunak bere gain
famiario norbait badu eta
alargunaren soldata famiario
sarrera nagusia bada % 70 -
eraino igoko litzateke pentsio
hau.

Modu berean, zenbait ka-
sutan, alarguntasun pentsioa
bigarren hezkuntza batekin
bateragarria izango litzateke.

Umezurtz pentsioa

Arau orokor bezala, umezurtz
pentsioak 22 urte bitarte jaso
ahal izango dira.

Kasu berezietan, 24 urte bitar-
te jaso ahal izango dira.

Gutxiengoko pentsioen igoera

Bai jubilazio-pentsioa, alar-
gun nahi SOVI-tik datozen
gutxiengozko-pentsioak igo
egingo dira.

Kotizazioetan kenkariak eta hobariak (bonifikazioak)

● Aurdunaldiaren ondoren
lanera bueltatzen diren ema-
kumezkoek % 100 gutxiago
ordainduko dute kotizazioe-
tan, lehenengo urtean.

● 50 urtetik gorako langileen
kontratazioarako ere laguntzak
egongo dira.

● Baita 65 urtetik gorako
langileen kotizazioetan ere.

Akordio honek beste hain-
bat gai ere jorratzen ditu de-
nak ere lan eta segurtasun so-
zialaren alorrean.

2004 urterarte egongo da
indarrean, eraginkor izan da-
din ordea, legedi mailan beha-
rrezko diren aldaketak egitea
nahitaezkoa izango da.

✓ Aholkularitza
juridikoa
✓ Entrepresa
zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA

AGI

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

BARANDIARAN Taberna

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

J.M. Iturrioz, 7
☎ 943 88 92 10
BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Zer edo nor botako zenuke zaborretara?

Ez dut uste inork merezi duenik zaborretara botatzeak, beti ere birziklatzeko aukera eman behar zaiola uste dut.

Zer edo nor birziklakuko zenuke?

Gure herrian hainbeste hitzegin eta hain gutxi egiten duten horiek, ea behingoz alderantzizkoa egiten duten.

Kalean paperen bat botatzen duenari zer esango zenioke?

Ea bere etxean ere hori egiten duen. Kalea denona da eta hori egiteak hezi-gabeko bat dela erakusten du.

Jaietan plastikozko edalontziak ala kristalezkoak?

Nik neuk kristalezkoak nahiago ditut, ala jaietan gutxiago ordaintzen dugu edariengatik?

Zer sentitzen duzu jaietako biharamonean kaleak nola gelditzen diren ikusita?

Gauean mugimendu handia egon dela pentsatzen dut. Izugarrizko zaborra sortzen da. Jai goizean Beasain

guztiko zaborraren erdia tabernetako bi kaleetan biltzen dugu.

Birziklatzeko lanik gutxiena ematen duen materiala:

Beira. Betidanik asko birziklatu izan dugu goierritarrok. Asko egongo denaren seinale.

Eta gehiena:

Ontziak. Oraindik ere asko kostatzen zaigu etxean sailkatzeak.

Loinatz jaietarako plan bat:

Jaietaz gozatu eta lagunekin parranda on batzuk egin.

Beasaingo jaietako egunik onena:

Koadrila eguna izaten da hoberena. Mozorro-egunean ere oso giro polita egoten da, arratsaldean batez ere.

Zer falta da Beasaingo jaietan?

Agian herri-giro gehiago. Egia esan gauzak antolatzeke edo dauden ekin-tzetan parte hartzeke ez dugu gehiegi egiten.



Enrike Enparantza
Sasieta

Jairik onenak, non-goak?

Beasaindarra izanda bertakoak, noski. Hala ere festa bakoitzak jarri behar du. Ordiziakoak eta Zegamakoak ere ez dira txarrak.

Astelehena arinago pasatzeko errezeta:

Hoberena astelehenean ere jai egitea.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19

☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44

BEASAIN

LAZKAO

ORDIZIA

Gaztelu

● Iturgintza

● Berogintza

Mendi-Ono etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN

HORTZ KLINIKA



Silvia Miras Casasayas

Odontologoa. 649 koleg.

Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.

☎ 943 88 92 87

BEASAIN

Loinatz jaiak

Maiatzak 25, ostirala:

16:30ea: Aldibereko xake-txapelketa amateurrentzat.

19:00etan: Erraldoi eta Kili-kien irteera txistulariekin eta Musika Eskolako bandarekin.

20:30ean: Loinatz abesbatzaren eta Musika Eskolako abesbatzaren kontzertua, Igartzako jauregian.

22:30ean: Mariren jaitiera, Loinazko San Martin plazan.

23:00etan: Goierriko erraldoi eta kiliki taldeen irteera, Koskola txarangak eta Golo-ka taldeak 'Halloween' ikuskizunarekin lagunduta.

23:00etan: 'Dixikleta jazz band', Bideluze plazan.

Maiatzak 26, larunbata:

09:00etan: Txistularien Udal-bandaren goizeresia.

10:00etan: Meza, Loinazko Andre Mariaren ermitan.

10:00etan: XXXI. Loinazko San Martin Nazioarteko xake-jokaldiak, Ezkiaga auzo etxean.

11:00etan: Grafiti erakustaldia, CAFeko sarrera ondoko parkean.

12:00etan: Haur danborrada, Oriako pasealekutik abiatuta.



16:00etan: Arkuzko tiraketa: Asturiasko Printze saria (sailkapena), Olaberriko futbol zelaian.

16:00etan: II. Loinatz eskuzko pilota-txapelketa, Batzoki-ko frontoian.

17:30ean: Haurrentzako tailerrak 'Detra' taldearekin, eta ludoteka Joan Iturralde plazan.

18:30ean: Danborradako konpainien irteera.

18:30ean: "Brigantia" Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Koskola txaranga.

19:00etan: Beasaingo Hiria argazki lehiaketako erakusketak eta sari-ematea, Usurbe antzokian.

22:30ean: Danborrada.

00:00etan: Danborradako konpainien bilkura eta azken joaldia Koskola txarangarekin eta Musika Eskolako bandarekin.

00:30ean: 'Voces Navarras', jota jaialdia, Loinazko San Martin plazan.

01:00ean: 'Baneteuanba', Bideluze plazan.

Maiatzak 27, igandea:

10:00etan: Txistularien Udal-bandarekin kalejira.

10:00etan: Arkuzko tiraketa. Olaberriko futbol-zelaian.

11:00etan: Landare eta sendabelarren erakusketa, Zubizumuzu plazan.

11:30ean: Beasaingo I. Dantza topaketak.

12:00etan: Barea marrazki lehiaketa, Joan Iturralde plazan.

12:30ean: Gernika pasealekuan, dantza taldeen bilkura.

13:00etan: Udalbatzaren soka-dantza, Loinazko San Martin plazan.

17:30ean: Kiki, Koko eta Moko pailazoak, Joan Iturralde plazan.

18:00etan: Dantza jaialdia, Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Koldo Trikitixa eskolako ikasleen irteera.

23:00etan: Su artifizialak.

23:30ean: Fuerza latina taldea, Bideluze plazan.

Maiatzak 27, astelehena:

08:00etan: Udaleko Txistulari-bandaren goizeresia.

09:00etan: Prozesioa Loinazko San Martinen baselizara.

10:30ean: Erromeria.

10:30ean: Lagunarteko XXV. futbol-txapelketako partidak.

11:30ean: Umeentzako parkea, Urbialde plazan.



- Ersku lanak
- Ikastaroak
- Opariak
- Enmarkazioak

© 943 65 55 77 © 943 88 40 56
Nafarroa Etorb., 10 J.M. Iturrioz, z/g
TOLOSA BEASAIN

Nagusia
Optika
Osakidetzarekin
hitzarmenari atxikiak
☎ 943 161 999 Nagusia, 10 BEASAIN

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak
San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

EDARITEGIA *Jar* **KAFETEGIA**
Festa onak pasa!
Nafarroa Etorbidea, 27 ☎ 943 88 86 81 BEASAIN

13:00etan: Laguntaldean irteera Oria eta Lagunak txarangek alaitua.

16:00etan: Umeentzako parkea, Urbialde plazan.

18:30etan: Laguntaldean jai-tsiera.

19:00etan: San Inazioko laguntaldea Oria txarangarekin igoko da Erretiratuen etxera eta Arangoiti Agureen egoitzara.

19:00etan: Egan, Bideluze plazan.

23:00etan: Egan, Bideluze plazan.

Maiatzak 29, asteartea:

10:00etan: Kalejira Txistularien Udalandarekin.

10:00etan: Urteroko azoka berezia.

11:00etan: Umeen soka-dantza, Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Trikitilariak.

13:00etan: Andoni Egaña, Jesus M. Irazu, Mikel Mendizabal eta Ekaitz Gojkoetxea, Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Helduen soka-dantza, Loinazko San Martin plazan.

19:30etan: Bertsolariak eta trikitilariak.

Txosnatako egitaraua

Maiatzak 25, ostirala:

20:00etan: Txosnen irekiera.

22:30etan: Kontzertua: Grupo Salvage (Lazkao-Donostia), Obligaciones (Gasteiz), Vincent Bon Reverb y sus baqueros electricos (Castellon) eta Geesrings (Alemania).

Maiatzak 27, igandea:

24:00etan: Kontzertua: Selektah-Kolektiboa (Zizurkil-Iruña-Baiona) eta Servicio Sekreto (Mexio-Iruña).

Maiatzak 28, astelehena:

20:30etan: Txan magoa.

Ekainak 1, ostirala:

22:30etan: Kontzertua: Lif (Hondarribia), Leher (Ormaiztegi) eta Lisang (Irun).

Ekainak 1, ostirala:

16:00etan: Gipuzkoako Eskolarteko 21. Bertsolari-txapelketaren finala, Antzizar kiroldegian.

19:00etan: Erraldoi eta kili-kien irteera Txistulariekin eta Musika Eskolako bandarekin.

22:30etan: Leher, Lisabo eta Lif, txosnetan.

23:00etan: Skalariak, Loinazko San Martin plazan.

Ekainak 2, larunbata:

10:00etan: Txistularien Udalandaren goizeresia.

10:00etan: '3, 3ren kontra' saskibalo txapelketa, Gerni-

ka pasealekuko frontoian.

11:00etan: Erretiratuentzako Toka eta igel txapelketak, Zaldizurreta kaleko terrazan.

11:00etan: Elkarleen arteko sukaldaritza-lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

13:00etan: XLXII. Loinatz Txirrindulari proba amateurrentzat.

16:00etan: Plater-tiraketa, Zelaizabalaren.

16:00etan: Gaztetxoentzako xake lehiaketa, Ezkiaga Auzo etxean.

17:30etan: Umeentzako Mozorro tailerra, Barrendain plazan.

18:30etan: Mozorroren bil-kura eta ibilaldia 'Detraka' taldeak eta 'Oria' txarangak alaituta, Barrendain plazatik.

19:00etan: Umeentzako dantzaldi girotua.

19:00etan: Saloiko dantzen, sevillar eta ballet dantzen erakustaldia, Loinazko San Martin plazan.

23:00etan: Paco Formoso eta bere maritxiak, Loinazko San Martin plazan.

00:15etan: Pasarela orkestra, Loinazko San Martin plazan.

Ekainak 3, igandea:

09:00etan: Iturengo Zapan-tzarren esnadeia.

11:30etan: Zumaiako Musika-bandaren kalejira.


12:00etan: Erakusleihen lehiaketako sari-banaketa, Bareak elkartean.

13:00etan: Zumaiako Musika-bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

17:30etan: Dantzaoketa eta play-backa, Joan Iturralde plazan.

19:00etan: Herri-kirolen erakustaldia, Gernikako pasealekuko frontoian.

19:00etan: V. Dantza libreko lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.



- ✓ Pinturak
- Dekorazioa
- Industrialia
- ✓ Tresnak
- ✓ Makineria

Tfnoa./faxa: 943 88 65 63
Oriamendi, 32 BEASAIN

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak



Jaietan ere preso eta
iheslariak gogoan

Nagusia, 12
BEASAIN



URBIETA TABERNA

Karta eta eguneko menua

Kaxueletan berezitasuna

Pintxo eta errazioak

Plater konbinatuak

Jose Migel Iturrioz, z/g
(Urbieta zentraren parean)

BEASAIN ☎ 943 88 33 01

Xabier Mendigurenen azken liburua: 'Errekarteko koaderno'


Beasaingo Xabier Mendiguren Elizegi idazleak 'Errekarteko koaderno' liburua argitaratu berria du. Saiakeratik nobelatik baino gertuago dago azken lan hau. "Gezurrik kontatu gabe, zer edo zer idatz dezakedan" ahalegina egin du. Eraitza, kalem da.

Galdutako aitonaaren bitartez sustraiaren bila dabilenaren saioa da Xabier Mendiguren beasaingarrak 'Errekarteko koaderno' liburuan egin nahi izan duena. Donostian egin zen liburuaren aurkezpena eta Juan Luis Zabala kazetariak egin zuen Mendigurenekin batera liburuaren aurkezpena. Kazetariak esan zuenez, "barruan izan ditudan kezka eta gogoeta asko liburuan agertzen dira. Xabierrek berak esaten du hori dela literaturaren zereginetako bat. Irakurleak buruan izan dituen esperientziak eta pentsamenduak modu mamituan ematea, eta hori egiten duela uste dut".

'Errekarteko koaderno' liburuan honela laburbiltzen du Beasaingo idazleak.

"Galdegin dezadan: zertan ari naiz? Zer egin nahi dut? Neronek ere ez dakit; hobeto esanda, orain arte ez bezalako zerbait egin nahi dut, diferentea. Fikzio-idazlea naiz ni funtsean, orain, ordea, proba egin nahi dut, ea ezer asmatu gabe, gezurrik kontatu gabe, zer edo zer idatz dezakedan.

Gezurrik-eta asmatu gabe beraz. Zer kontu nezake orduan? "Egia" oso erantzun osoa da, zehazgabea guztiz, eta juzgu etikoaren kutsu handiegia duena. Nik agian pozik idatziko nuke saiakera bat, gai baten goiti-beheitiak argitu, bere sakontasunak arakatu, mamiak azaleratu. Horretarako gaitasun bereziak behar dira ordea, eta ni lardatsegia naiz ikergai bate-



an buru-belarri murgildurik luzaroan irauteko, alferregia aipua eta erreferentziak metodoz eta pazientziak jasotzen ibiltzeko. Horrenbestez, kanpoko munduaz hitz egiteko gogorik ezean, neure buruaz jardun beste erremediorik ez daukat".

Honela, ongi ezagtu ez zuen aitonaaren eta bizi izandako Errekarte baserriaren inguruan osatu du 'Errekarteko

koaderno' liburu. "Nostalgia-ekin eta interes batekin abiatzen da aitona galduaren bila. Sustraiaren inguruko kezka bat dago. Nor gara, nondik gatoz, nora goaz... Sinestro Total musika taldearen kantuak egiten dituen galdera horiei erantzuna eman nahian abiatzen da Errekarte baserrira, bere jaiotetxetik", esan zuen Juan Luis Zabala kazetariak.

XABIER SALINAS ELEKTROMEKANIKA

Erraminta elektrikoaren konponketa
Elektrikoa, pneumatikoa eta frekuentzi altukoa

☎ 943 88 21 49

Katea, 5

BEASAIN

ALKIMAK

Eraikuntza eta industriako
erramienten alokairua

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Lurre lantegialdea, 10

☎ 943 88 05 65 OLABERRIA

GOISYSYSTEM

Informatika aplikazioak



- ✕ Ordenadore salmenta
- ✕ Konponketa
- ✕ Informatika ikastaroak
- ✕ Etxeko zerbitzu teknikoak

Joan Iturralde, 1

☎ 943 88 79 14 - 943 16 04 01

BEASAIN

Xabier Mendiguren kaleu-
me hutsa da, eta gainera, ez
zaio sekula baserria gehiegi
gustatu. Baina jendearengan
baserriaren kontzeptuak izan
duen eragina bilatu nahi izan
du. Idazlea bere etxeko leiho-
tik jarri da begira eta bertatik
ikusten duenari begira ikusi-
takoa kontatzen du.

Saiakera arina

Saiakeratik nobelatik baino
gertuago dago 'Errekarteko
Koaderno' lana. Liburua ez
da autobiografikoa, ezta fik-
ziozkoa ere. Barne gogoetak
sortutako saiakera arina da.
Xabier Mendiguren 'Gure
barrio 1975' eta 'Nerabea-
ren biluzia' aurreko bi libu-
ruekin trilogiarik osatu nahi
izan duen galdetu zion Juan
Luis Zabala kazetariak. "Nik
une batera arte asmatu-
riko istorioak idazten nituen, bai-
na une batean ilea erortzea-
rekin eta urteak batzearekin
edo neure barrura begiratze-
ko gogo sentitu nuen. Ez ni-



re esperientziak agertzeko,
baizik eta barrura begiratuta
kanpora besteekin bat egingo
duen kate horren bila", esan
zuen Mendigurenek.

'Errautsen dizdira'

Dagoeneko prest dauka Men-
diguren hurrengo liburua.
'Errautsen dizdira' izena
izango du eta ipuin liburua
izango da. Fikzio hutsa. Au-
rrera begira, gogoeta liburu
gehiago egitea ez du bazter-
tzen.

**"Fikzio-idazlea naiz ni
funtsean, orain, ordea, proba
egin nahi dut, ea ezer asmatu
gabe, gezurrik kontatu gabe, zer
edo zer idatz dezakedan"**

Errekarteko koaderno

Arantzamendi eta Aranburu ba-
serriak ikustera joan naiz gaur;
abenduak 25, Eguberri eguna.
Aspaldian igo gabe nengoen al-
de horretara, urte asko, 25
igual, mutiko-koxkorra artean.
Eta hala ere neure-neureak izan
ditut bitarte honetan guztian,
etxetik bertatik ikusten baintuen
egunero-egunero: sukaldeko
leihotik ezkerrean begiratu
eta hantxe neuzkan, Loinaztik
gora, Antzamendi, Anbu Goikoa
eta Azpikoa, Mendizabal...

(...) Errekarteko argazkietan erreparatu dut gaur bereziki.
Osaba-izebak, lehengusu guztiak... aitona eta amona ez ziren
ageri ordea argazki bakar batean ere. Edo ia-ia: aitona Jo-
xemariren burua ikusi uste izan dut Osaba Migel ezkondu ze-
neko talde-argazki bateko izkinan, txiki-txiki; eta amona Te-
resa, nire lehengusu bat taka-takan ibiltzen ageri den erre-
tratu bateko atzealdean ageri da, kameraz ohartu gabe, des-
kuidoan bezala...

(...) Liburu honetan ere, norberaren munduaren adieraz-
penarekin edo egolatria ttantta batzuekin batera, honelako
uste bat dago sakonean: bizitzaren zertzelada guztiz diferen-
tean azpitik edo gainetik oinarritzeko parametro batzuetan gi-
zon-emakume guztion sentipenak direla funtsean berdintsuak;
parametro horien artean dago noski norbaiten seme edo ala-
ba izatea, norbaiten biloba, non edo non izatea sustrai edo
jatorri bat, dela egiazkoa dela amestua...

(...) Izan nintzen haur haren ondoko hau, berriz, koadern-
oa amaitzearekin batera ohartu da --ohartu naiz-- Errekar-
te baserria ez baina neure etxe xaxtarreko sukaldea dudala
egiazko erro eta sustrai; sukalde honetako leihoa izango de-
la beti nire begien marko naturala; eta herabetasun apur ba-
tez aitortuko dut, halaber, askorik ezagutu ez nuen aitonen
bila abiatu arren, agian neure aita nahi nuela topatu...

A H O L K U L A R I T Z A

GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

Jai zoriontsuak
denoi!

☎ 943 16 00 65 Faxa: 943 16 03 59

J. M. Iturrioz, 6

BEASAIN



MUJKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

Bas eta Choice graffitilari beasaindarrekin solasean

Graffiti erakusgai Beasainen

Maiatzaren 26an, Loinatz jaien barruan, graffiti erakustaldia izango da CAF ondoan, Olan lantokiaren aurrealdean. Graffiti munduaren nondik norakoak jakin nahirik, bi beasaindarrengana jo dugu, Bas eta Choicerengana. 1998 urteaz geroztik graffitiak margotzen ari dira.



Anonimatasunean oinarrituriko mugimendua da graffitiarena. Ezizenak hartzen dituzte graffitilariak eta beraien sinadura ahalik eta lekuri gehienetan, ahalik eta txukun, idaztea da euren helburua. Kasu honetan, Bas eta Choice ditugu mintzalagunak.

Graffitiaren sorrera New Yorkeko Bronx auzoan aurki dezakegu, 60. urte bukaeran. Taqui 183 izenez idazten zuen pertsona bat, bere izena paretetan idazten hasi zen. Lehenengo errotuladoren idazten zuen sinadura. Leku

guztiak firmaz beteta zeudenez, berriak gehiago nabarmentzeko hasi zen letra handiagoak egin eta sprayekin margotzen, gaur egun ezagutzen ditugun formatara iritsi arte. Letrak-eta eboluzionatuz joan dira. "Idazle bakoitzak ezizen bat hartzen du eta bere estiloan irudikatzen du. Estilo ezberdinak daude. Gaur egun letretatik aparte, beste hainbat elementu ere sartzen dira. Aurpegiak, marrazkiak... Hip-hop mugimenduaren barruan dauden beste elementuak sartzen dira". Aurpegiak lantzen hasi da

Bas, raperoen aurpegiak. "Guk graffiti hip-hop mugimenduaren barruan ikusten dugu. Break dance, graffiti, DJa eta rap elementuak biltzen dituen kultura da hip-hop". Mugimendu horrekin identifikatzen dira Bas eta Choice.

Denborapasatzat dute graffiti. Kasualitatez sartu ziren mundu honetan. "Gure kasa ikasi genuen, eta azkenean kalera atera eta margotzen hastea da. Aldizkarietatik ikasi dugu. Aspalditik atentzioa deitzen zidaten graffitiek baina hemen ez ge-

nuen sekula ikusi. Marraztea gustuko izan dugu beti eta behin kasualitatez, festa batzutan, errotuladorearekin margotzen ari ginela mutil bat ezagutu genuen eta berak graffiten inguruko materiala saltzen zuela esan zigun: sprayak, aldizkariak, musika... Berarekin harremanetan jarri ginen eta aldizkari batzuk erosi genizkion. Azkenean, margotzeko gogoari ezin eutsita, sprayak erosi eta margotzera irten ginen".

Inguruko dendetan saltzen dituzten sprayak garestiak izaten dira baina badago marka berezi bat graffitietarako espezializatua eta merkeagoa dena. "Mugimenduaren hasieran besterik ez zegoenez, jendeak lapurtu egiten zituen sprayak, oso garestiak zirelako".

Horma biluziak jantzi

Horixe da graffitilariak egiten dutena. Aurrez pentsatutako marrazkia, herriko horma biluzietan margotu, beti ere sinadura oinarri dela. Dena den, zailtasun bat badute

ARTANE

- Liburuak, Aldizkariak...
- Eskulanak
- Eskolarako gaiak

Andra Mari, 1

© 943 16 16 72 BEASAIN

Urlo
ALTZARIAK

ESTEBAN LASA, 5 © 943 88 97 95 BEASAIN



© 943 88 03 19

Kale Nagusia, 7 BEASAIN

J. ARANBURU

Gizon, emakume eta haurrentzako
OINETAKOAK

Festa onak pasatu!

Kale Nagusia, 38

© 943 88 01 27 BEASAIN

graffitilariek: hormak margo-
tzeko baimenik ez dagoela.
Basek esan digunez, "nor-
malean baimenik ez dugu es-
katzen eta momentuan ez du-
gu arazorik izan. Ertzainek
datuak hartu izan dizkigute
baina ez da gehiagora joan".
Choicek zera gaineratu du:
"Ez gara edozein paretan
margotzera joaten. Jende
gehienak ikusiko duen pare-
taren bila joaten gara, herri
erdigunean izan dadila. Eta
askotan zailagoa izaten da
herri erdian paretak aurki-
tzea".

Lan bat bukatzerako beste
bat izaten dute buruan, hor-
mak begiz jota ere bai. "Bai-
na zailtasunak daude. Zen-
bait lekutan, Udalarekin
akordiotara iritsi eta hormak
uzten dizkiete graffitilariei
margotzeko. Hori batez ere,
graffitilari gehiago dagoen
lekuan lortzen da", esan digu
Basek.

Graffitilarien artean ba-
daude, hormaz gain, trenak
ere margotzen dituztenak.
Choicen esanetan, "Paretak
margotzen dituenak kalitatea
bilatzen du; trenak margotzen
dituztenak, kantitatea, azkar
margotu behar izaten baitute.
Madrilen eta Bartzelonan



izugarritzko borroka omen
dago nork gehiago margotu".
Basek aitortu digunez,
"mundu honetatik batere
gustatzen ez zaidana da,
nahiko harrokeria dagoela".

Estatu Batuetan esaterako,
beste lan batzuk ere egiten di-
tuzte graffitilariek. Dantzale-
kuko paretak, etxeetako hor-
mak, muralak... margotzeko
kontratatzan dituzte eta hortat-
tik bizi dira graffitilariak. Ba-
sek esan digunez, "hemen
sprayari buruz hitz egiten du-
zunean, jendea izutu egiten
da. Ni ziur nago, jendea al-
dizkariak-eta erakutsiz gero,
jendeak beste era batera pen-
tsatuko zuela". Choicek go-

goratu digunez, "Zumarra-
gan badaude etxeen paretak
margotuta, baina sprayarekin
margotuz gero ez litzateke
gauza bera izango jendearen-
tzat". Basentzat, "spraya ma-
karra jendearekin-edo lotzen
da. Denbora asko margotzen
ari den jendeak izugarritzko
kalitatea dauka".

Mugimendu ezezaguna

Goierriin gero eta zaletasun
handiagoa omen dago graffi-
tietarako. "Geroz eta gazte
gehiago datoz. Baina orain
arte oso jende gutxi aritu da.
Gure aurretik beste bat ari-
tzen zen", diote.

Herritarrek zein harrera
egiten ote dioten galdetu die-
gu. "Zaharrenen aldetik uste
baino harrera hobea eduki
izan dugu. Askok lehen baino
hobeto uzten ditugula paretak
esaten digute", diote. Beste-
lakorik ere bada, ordea Choi-
cek esan digunez: "behin,
Loinazpen pintatzera gindoa-
zen batek, hauteskunde kan-
paina baten azkeneko eguna
zen, bizilagun batek Ertzainei
abisua eman eta Ertzainak
etorri ziren. Datuak hartu ziz-
kiguten".

Festetan erakustaldia

Beasaingo Loinatz festetako
egitarauan, graffiti erakuske-
ta dago. Maiatzaren 26an
izango da, Orlan lantokiaren
aurrean, goizeko 11etan hai-
ta. Festa egunetan erakusgai
egongo dira. "Kontraesana
ere ikusten dugu. Badakigu
hormak margotzeko baimenik
ez dutela ematen. Zailtasunak
jarri herri barruan margotze-
ko eta festetan onartzea,
graffitia bultzatzeko ekintza
bat egitea, kontraesan bat
iruditzen zaigu. Noski, guri
interesatzen zaigu graffiti
erakustea eta jendea anima-
tzea", esan digute.



**Proba
itzazu
"Beasaingo
Martintxoak"**

GOZODENDA

Jai zoriontsuak!

**Nagusia, 11
Nafarroa Etorb., 19**

☎ 943 88 82 37 BEASAIN



Jokin Telleria

**MARKETERITZA
eta ARTEDER
MATERIALA**

☎ 943 16 23 44

Esteban Lasa, 2 C BEASAIN

PEAGE

ZURE BAKERO DENDA

Levi's

Bonaventure

Replay

Guess

Liberto

Nagusia, 42 BEASAIN

Korreo, 25 TOLOSA

Emeterio Arrese, 25 TOLOSA

Garibai, 6 DONOSTIA

URBIL merkatal zentrua

Boni-etxe


igeltseritza orokorra



© 616 921 502 ©

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN



Ola auzoa, 4 LEGORRETA
☎ 943 80 61 00 - Faxa: 943 80 63 74

Lorategietarako
eta hondartzarako
altzariak

Diseinuko altzari
modernoak

Jai zoriontsuak denoi!



Jaiak iganderarte

Asteazkenean, maiatzaren 23an, Gizon Pikua Udaletxe-ko balkoian jartzearekin batera hasi ziren Legorretan jaiak. Harrezkero etengabe dabilta festan, baina egunik oparoenak datozen egunotan izango dituzte.

Maiatzak 25, ostirala:

10:00etan: Diana dultzainariek.

11:00etatik 13:00etara: Haur jolastokia Kirol gunean.

12:30ean: Pote, igel eta toka txapelketa, Herriko jubilatuen artean.

14:30ean: Zikiro jatea Bikoin K.K.E.n, Iraunkorrek txarangak alaitua.

15:00etatik 17:00etara: Haur jolastokia, Kirol gunean.

19:00etan: Haurrentzako-play back saioa.



23:00etan: DJ amateur ekitaldia.

Maiatzak 26, larunbata:

10:00etan: Diana dultzainariek.

11:00etan: Gimnasia erritmiko eta judo erakustaldia, herriko gaztetxeen eskutik, Harri-
ripila kiroldegian.

13:00etatik 24:00etara: Mozorro eguna.

13:00etan: Txakolin dastaketa Iraunkorrek txarangak alaitua.

13:00etan: Herriko XIX. Palla txapelketa.

14:30ean: Lagunarteko herri bazkaria plazan.

23:30ean: Egan.

01:30ean: Mozorro lehiaketaren sari-banaketa.

Maiatzak 27, igandea:

10:00etan: Diana dultzainariek.

12:00etan: Buruhandiak trikitilarietz lagunduak.

Ondoren: Kalejira trikitilarien eskutik.

18:00etan: Iraunkorrek txaranga.

19:30ean: Herri-kirolak: Iñaki Aierbe, Jabier Aranbarri, Aitor Esnaola, Peio Etxeberria, Arkaitz Iriarte, Jesus Mari Mujika, Josean Olaskoaga eta Jose Mari Telletxea aizkolariak.

20:30ean: Gizon Pikuaren ehorzketa.

PIKONDO TABERNA-k

festa zoriontsuak opa dizkizue!

Guadalupe auzoa

☎ 943 80 62 71 LEGORRETA

IÑAXI Tabernak

jai zoriontsuak opa dizkizue!

☎ 943 80 61 20

Nagusia, 8 LEGORRETA

ARANTXA TABERNAk

*jai zoriontsuak
opa dizkizue!*

Kale Nagusia LEGORRETA

OLASO Taberna

Giro jatorra

Guadalupe Auzoa

LEGORRETA ☎ 943 80 63 55

GUADALUPE TABERNA

Festa ondo igaro!

Guadalupe auzoa

☎ 943 80 63 85 LEGORRETA

GOIHERRI, S.A. PAPERAREN MANIPULAKETA

'Jai zoriontsuak denoi'

San Migel, 7

Tfnoa.: 943 80 61 90

LEGORRETA

Ugaro Herri Ikastetxean Eguzkia, energia iturri

Ugaro Herri Ikastetxean energia berriztagarrien aldeko apustua egin dute. Izan ere, Greenpeace talde ekologistak bultzatuta, eguzki energia biltzeko hamar plaka jarri dituzte. Eguzki Eskolen Sarea deritzona osatuko duten ikastetxeetako lehenengoa da Legorretakoa. Instalazio fotovoltaiako honek 1100 wateko potentzia du eta egunero-egunero elektrizitate bihurtzen du eguzkiaren argia. Egitasmo honen bitartez, ikastetxeak urtean 500 kilo CO₂ atmosferara isurtzea ekidindo du. Beraz, elektrizitatea sortzeko beste era bat

eskaintzen dute instalazio hauek, zentral termikoek sortzen duten kutsadurarik gabe eta zentral nuklearrak duten arriskurik gabe.

Energia aurreztuz eskola ekologikoagoa egiteaz gainera, helburu didaktiko eta pedagogiko argiak ditu proiektu honek. Horrela, ikasturte honetan landu duten energiaren gaia ikuspegi praktikoa batetik jorratzeko aukera izan dute Herri Ikastetxeko ikasle guztiek.

Instalakuntza guztia 1.5 milioi pezeta kostatu da, % 60 Eredu enpresak eta % 40 EVEK (Energiaren Euskal



Erakundea) ordaindu duela. Inbertsioa 13-14 urtetan amortizatzea espero da, baldin eta ekoiztutako energia Iberdrolak erosten badu.

Ugaro Ikastetxeko ingurugiroko arduradun den Mirari Arregik energia berriztagarriak lantzeko horrelako proiektu handien beharrik ez dagoela nabarmendu zuen. Izan ere, ingurugiro heziketa

proiektu txikiekin landu daiteke ikuspegi didaktikoa berbera izanik.

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi, Guraso Elkartearen eta ikastetxeko irakasleen aparteko esfortzua, eta nola ez, ikasle guztien partehartze amaigabea.

Laida Oiarbide
Inko Mujika

ARIZPE LANTEGIA

Pedro Mujika

Soldaketa elektriko eta autogenoan lanak

☎ 943 80 60 98

Eguzki Etxea

LEGORRETA



LASA
egurrak

Ondo igaro festak - Zorionak!

☎ 943 80 60 22 - faxa: 943 80 65 56

Beroztegi auzoa **LEGORRETA**



aulia

TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA



AUSO EGI

Urdaneta, 41

☎-Faxa: 943 88 95 76

ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Gorka Izagirre eta Egoitz Berasategi txirrindulariak irabazle

Maiatzaren 5ean herrian zehar prestaturiko ibilbidean benjamin, alebin eta infantil mailako txirrindu probak jokatu ziren. Egun osoan zehar oso eguraldi txarra egin bazuen ere probak jokatu ziren bitartean eguraldia txirrindulari gaztetxoekin nahiko ongi portatu zen.

Hiru probetan parte hartu zuten txirrindularien kopurua handia izan zen. Tartean etorkizun handia ikusten zaien bi herritar gazte lehian aritu ziren. Hain zuzen Gorka Izagirre eta Egoitz Berasategi herritar txirrindulari gazteak.

Infantil mailan herritarrek irabazle

Gorka eta Egoitz Izagirre in-

fantil mailan lehian aritzeaz gain, helmugara lehen eta bigarren postuetan biak ia batera iritsi ziren. Beraientzat izan ziren infantil mailako lehenengo eta bigarrenari zegozkien sariak. Bi txirrindulariak gainontzeko txirrindularietatik ihes eginik iritsi ziren helmugara, Gorka Izagirre iritsi zen lehenik eta bere atzetik Egoitz Berasategi. Hirugarren postuan Ion Garcia andoaindarra iritsi zen.

Alebin mailako sailkapena

Alebin mailan Eder Gomez andoaindarra izan zen garai-le. Bigarren postua Unai Amenabar Urnietarrak eskuratu zuen. Helmugara iritsi zen lehen herritarra Ion Izagirre izan zen, sailkapen oroko-

igandeko hauteskundeetan 103 boto gehiago lortu ditu.

Bestetik bigarren alderdi botatuena EH izan zen, 205 botu lortu zituen, hala ere azpimarragarria da 1998. urteko hauteskundeetatik 60 botu jaitsi izana. PP alderdiak 30 botu lortu zituen, PSE-EE alderdiak 26 botu eta IU-EB 20 botu

Hirugarren ondorio benetan azpimarragarria herritarren parte hartze handia izan zen, mahaietara beraien botua ematera 855 herritar hurbildu zirelarik. Kontuan izanik Ormaiztegiko hauteskunde errolda 965 pertsonen osatzen dutela, abstentzioa %11,3koa bakarrik izan zen.



Egoitz Berasategi eta Gorka Izagirre herritarrek proba amaitu ondoren.

rreko 4. postua lortu zuen. Emakumeen artean lehen sailkatua Udane Sarasola izan zen.

Benjamin mailako sailkapena

Benjamin mailako lehenengo postua Billabona taldeko Odei Gilek lortu zuen. Hirugarren postua berriz goierritar batek lortu zuen hain zuzen Jon Ander Insausti mutilo txirrindulari gaztetxoak. Helmugara iritsi zen lehen herritarra Haritz Urkiola izan zen. Emakumezkoen artean lehenengo iritsi zena Maite Murgia lazkaotarra izan zen.

Ur kontagailu zaharren aldaketa

Ur Zerbitzuak Ormaiztegiko abonatuak jakinarazi nahi die maiatzaren 21etik aurrera 2001 urteko lehen hiru hilabeteko irakurketetan aurkitutako kontagailu zahar edo matxuratuak aldatzen hasi zirela. Edozein argibide behar izanez gero 902 30 22 22 telefonora deitzea nahikoa duzue.

Aitziber Murua

Hauteskundeetan EAJ-EA irabazle, EHren jaitziera

Maiatzaren 13an ospatu ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan gure herrian izandako emaitzak orokorrean izandako emaitzekin bat datozen. Bozkatetatik lortutako emaitzetatik hiru ondorio nagusi atera daitezke.

Batetik EAJ-EA koalizioaren garaipena boto gorakada izugarriarekin, gainontzeko alderdietatik asko alderatuz 573 botorekin alderdirik botatuena izan zelarik. EAJ-EA Euzko Abertzaleak Koalizioak, 1998ko hauteskundeetako emaitzekin alderatuz,

Mahaikako emaitzak

Herrian bozkatetarako bi mahaikokatzak dira. A mahaiko hauteskunde errolda 526 hautesleek osatu zuten, beraietatik botoa 468 herritarrek eman zutelarik. Aipatu mahaian lortutako emaitzak hauek izan ziren: EAJ-EA koalizioak 312 boto, EH 117 boto, PP 17, PSE-EE 12, EB-IU 9 eta PH 1 boto.

Bestetik B mahaiko hauteskunde errolda 439 hautesleek osatu zuten, beraietatik botoa 387 herritarrek eman zutelarik. Aipatu mahaian lortutako emaitzak hauek izan ziren: EAJ-EA koalizioak 261 boto, EH 88 boto, PP 13, PSE-EE 14 eta EB-IU 11 boto.

EAJ-EA koalizioaren eskertza

Igandean ospatu ziren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan EAJ-EA koalizioak, herrian izandako gorakada handiari esker lortutako garaipenaren aurrean, eskeronezko mezu hau igortzen dizue aipatu koalizioarengan izan duzuen konfidantza goraiatzeko asmoz. "Koalizioari botoa ematea, bakeari baietza eta Euskal Herriaren etorkizunari baietza ematea zela ohartu izan zareten 573 herritarrek jaso ezazue lerro hauetatik koalizioaren izenean bihotz-bihotzez eskerrik beroena".

Altzagarateko jaiak maiatzaren 27an

Datorren igandean, maiatzaren 27an, izango dira Altzagarateko jaiak. Egitaraua prest dago dagoeneko eta egun pasa ederra egiteko aukera izango da.

12:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Telleria eta Loizaletxe II. bertsolariak eta Epelde eta Larrañaga trikiti-

lariak.

14:00etan: Bazkaria.

18:00etan: Aizkolariak: Iñaki Azurmendi arriarandarra eta Daniel Vicente, (Nafarroako 2. mailako txapelduna).

Egin beharreko lana: enbor bat golpe gutxiagoan nork ebaki, enbor bat nork azkarrago ebaki eta 6 kana



erdiko ebakitzea.

19:00etan: Toka txapelketa.

Ondoren: Bertsolariak eta trikitilariak.

Bola lehiaketa

Maiatzaren 6an jokatu zen Mutiloko bolatokian Gipuzkoako binakako bola txapelketako bigarren saioa. Lehenengo saioa Lasarten jokatu zen apirilaren 29an. Biak baita sailkapena honela geratu zen: German Gereñu eta Gilberto Juaristik osatutako bikotea geratu zen lehenengo; bigarren Antonio Alustiza

eta Luis Aizpeolea eta hiru garren Iñaki Azarola eta J. Luis Agirre.

Eguneko tirada kontuan hartuz, Patxi Arrondo geratu zen lehenengo 48 birla bota, hiru hurrengoak, Iñaki Azarola, J.M. Etxebeste eta Luis Aizpeolea sailkatu ziren, 47na birlarekin.


Heriotza

Asko uste gabe joan zen gure artetik, maiatzaren 3an Manastegi-zahar baserriko Martin Yun, 64 urte zituela.

San Isidro eguna

Maiatzaren 15ean San Isidro eguna ospatu zen eta herriko baserritarrek ohitura zaharri eutsiz meza izan zuten iluntzeko 8etan eta ondoren mahaia inguruan elkartu ziren herriko Ostatuan mokadutxo bat egiteko.

Iñaki Ugalde



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Emilio Sanchez Bizkaiko Birako txapeldun

San prudentzio jaiekin batera, apirilaren 28tik maiatzaren 1era, hainbat txirrindulari ezinduk Bizkaiko Txirrindularitza Biran hartu zuten parte. Bertan Emilio Sanchez lazkaotarra suertatu zen garaile. Zorionak!

Bizkaiko Biran lau etapa izan ziren, azkena ordulari aurkako aldapa baten igoera. Emiliok bi etapa irabazi zituen, baina beste biak, berriz, Amador Granados usurbildarrarentzat izan ziren. Hala ere, eta sailkapen nagusian puntuaketa altuagoa zuenez, azkenean Lazkaoko Emilio Sanchez txirrindularia nagusitu zen. Bira honetan, Lazkaoko Ekain Arruabarrena ere egotekoa zen, baina mina hartuta zegoenez, ezin izan zuten bertan parte hartu.

Bizkaiko itzuli honetan bi kategoria ezberdin zeuden; alde batetik elbarriak txirrin-
duz, eta bestetik, berriz, bu-
ruko paralisia edukitzeagatik
"trizikloz" parte hartu behar
zutenak. Hala ere, eta frogak
banatuta egiteko jende gehie-
girik egongo ez zenez, bi
modalidadeak batera aritu zi-
ren. Emilio Sánchez txirrin-
duko alorrean izan zen garai-
le.



Josu Sarriegi Dortmunden

Josu Sarriegi lazkaotarra Dortmunden izan zen maiatzaren 16an jokatu zen UEFAko finalean Alaveseko jokalarien artean egon zen Lazkaoko futbolari gaztea. Azken momenturarte erabakitzeke egon zen UEFAko txapelduna nor izango zen, baina azkenean Liverpool suertatu zen garaile, Alavesek bere atean gola sartu ondoren. UEFAko kopa ezin izan du Josuk esku artean altxatu, baina hala ere pozik dago lehen mailako talde batean jolastu eta horren urruti iristeko aukera izan duelako. Segi horrela!

*Eskuineko
argazkia,
Emilio
Sanchez
txirrindularia.
Ezkerrekoan,
Josu Sarriegi.*



200 haur udalekuetara

Gaztetxoenean, kirol ekintzez gain, badute udara ongi pasatzeko beste aukera bat ere. Lazkaoko San Benito ikastolak azken urteotan, ingelera ikasteko udalekuak antolatu izan ditu, eta aurrean ere horrela egin du. Beire eta Lizarra joaten dira haurrak eta bertan udalekuean egoteaz gain, ingelera praktikatu eta ikasteko aukera paregabea izaten dute. Aurtengoan 200

haur inguruk eman dute izena udalekuearako.

Trikitixa ezagutuz

Trikitixa gustuko dutenek, gozatzeko aukera izango dute datorren ekainaren 6an. Donato eta Edurnek "trikitixa eta perkusio bikotea" ikuskizuna eskainiko dute Maizpide Euskaltegian. Emanaldia arratseko bederatzieta izango da.

Oihana Sarasola

Udarako kirol aukera zabala

Eta dagoeneko udara iristear dagoen honetan, Lazkaoko udalak hainbat kirol ekintza antolatu ditu. Kirol aukera oso zabala da, eta lurreko nahiz uretako kirolak egin ditzakegu. Igeria, tenisa, irristaketa, pelota, saskibaloia, aerobika, piraguis-moa, eskalada, mendiko bizikleta, arku tiraketa eta balioanitzeko jarduerak eskaintzen dira "Udako kirolak 2001" kanpainaren barnean. Ekintza hauetako gehienak eskolamendatzako prestatu badituzte ere, helduek badute hainbat kirol ekintzetan parte hartzeko aukera. Izena emateko epea ekainaren 20 arte egongo da zabalik animatzen direnentzako. Jarduera gehienak ekainaren 25etik uztailaren 20 bitartean ospatuko dira. Hala ere, eta informazio gehiago nahi dutenek Joexmiel Barandiaran kiroldegira jo dezakete argibide bila.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Hautzaindegia-ludoteka

Zabalik urte osoan zehar:

- * **Hautzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- * **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- * **Hautzaindegia-Ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- * **Kangurak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

Astotegiko Zubia, udalaren aldizkari berria kalean

Udalaren eta herritarren arteko harremana sendotzeko asmotan Itsasondoko udalak aldizkari berria kaleratu du, Astotegiko Zubia.

Aldizkariaren helburua herritarrek udal-taldearen lana, asmoa eta erabakiak zuzenean eta lehen eskutik ezagutzeko dela zehazten dute lehen aleko orrietan.

Astotegiko Zubia aldizkaria "udalaren informazioa eta herriko berriak zabaltzeko tresna" dela diote. Hala, aldizkarian herritarrei zuzenean eragiten dizkieten gaiak joratzeko asmoa erakutsi dute. Lehen alean esaterako, presoen alde udalak hartutako erabakiak eta egindako lana, herriko egoeraren azterketa eta herrian ireki berri duten dendari buruzko aipamena egiten dute. Azken orrian, berriz, udalak osoko bilkuretan hartutako erabaki



Herritarren eta udalaren arteko harremana estutzea helburu



Itsasondoko Udalaren erabakiak joratzeko asmoa erakutsi dute. Lehen alean esaterako, presoen alde udalak hartutako erabakiak eta egindako lana, herriko egoeraren azterketa eta herrian ireki berri duten dendari buruzko aipamena egiten dute. Azken orrian, berriz, udalak osoko bilkuretan hartutako erabaki

garrantzitsuenak aipatzen dira laburrean. Herriko berriak landu eta aztertzearekin batera, herritarren parte-hartzea bultzatu nahi dute. Gai ezberdinen inguruan herritarren iritzia duen garrantziaz jabeturik, "aldizkariaren bidez herritarrek gai ezberdinen inguruko

hausnarketa egitea bultzatu" nahi dela dio Udalak. Era berean, Astotegiko Zubia "herritarren aho-
tsa" izan nahi duela diote lehen alean. Beraz, edonork zerbait aipatu, galdetu edo iradoki nahi izanez gero aldizkariaren azken orrian helbide bat eskaintzen zaio herritarrei.

Bestalde, aldizkariaren lehen orrian aldizkaria euskara hutsean izango dela zehazten da, "euskara gure hizkuntza denez eta udalak 1994. urtean UEMAN sartuz euskaren aldeko apustua egin zuenez, euskara indartu eta hedatzea da aldizkaria euskara hutsean idazteko arrazoiak".

Aldizkaria herritar guztien artean banatuko da. Ez du orrialde kopuru zehatzik eta beharrendaren edo udalak egindako lanaren arabera kaleratuko da.

Itsasondo saria txirrindu proba

Bihar, goizeko bederatzi eta erdietatik aurrera, Itsasondo Saria txirrindu probaren lehen aldia ospatuko da. Itsasondoko Ijito Kirol Elkarteak antolatuta duen proba 23 urtez azpiko txirrindularientzako da eta bertan, beste hainbat txirrindulariekin batera, Mikel Gaztañaga herritarrek parte hartuko du. Oraindik Zugaitz Ayusoren partaidetza ez dago ziurtaturik.

Txirrindulariak goizeko 9,30etan abiatuko dira udaletxe aurretik eta Alegiraino joan beharko dute bitan. Bigarren aldian Alegitik Larraitza igoko dira eta Itsasondora jaitsi ostean, beste bi igoera egin beharko dituzte Larraitza berriro Itsasondoko udaletxe aurrean amaitzeko.

Itsasondo Saria probaren azken xehetasunak argitzeko bilera antolatuta dute gaur gaueko zortzi eta erdietarako udaletxean.

Nagore Etxeberria



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



GESTORIA BIOK
Errenta
aitorpenak
egiten dira

Goierri, 12
behea
ORDIZIA

943 88 44 00
943 88 12 58

TOKI-ALAI Jatetxea

Jaunartzeak - Bataioak - Ospakizunak
Menuak eta Karta zerbitzua

Aramako Plaza

Tel.: 943 888 953

ARAMA

Gipuzkoako txapeldun

Xepeño Agirre Gipuzkoako banakako bola txapelketan lehenengo geratu da, maiatzaren 13ko Segurako saioa eta 20ko Ategorrietakoa, biak, irabazi ondoren (93 birla). 2. Martxeliño Agirre (91 birla). Legazpiko Santa Kutz jaietako bola saioa ere Xepeñok irabazi zuen.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Preferentea:** Segura 2-1 Pasajes. **Jubenilak:** Segura 3-2 Antoniano. **Kadeteak:** Behobia 2-1 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 1-1 Tolosa.

Asteburuan: **Kadeteak:** Aizkorri-Mondragon, zapatuan, 11:00etan. **Preferentea:** Tolosa-Segura, jaien, 17:00etan (azken partida)

Labur-labur

● **Igerilekurako lana.** Uda garaian, Oxiña igerilekuan aritzeko, maiatzaren 31a baino lehen eman behar da izena udaletxean. Informazio gehiago udaletxean, 943801006 telefonoan.

● **Euroaren erabilerari buruzko hitzaldia.** Udalak Kutzaren laguntzaz antolatuta, ekainaren 7an, 19:00etan kultur etxean, herritar guztientzat.

● **Sanjoanetarako entsaioak.** Txistularien alardea: ekainaren 9an, 19.30ean Kultur etxean.

Santa Barbara maiatzaren 27an

Azintzio eguna maiatzaren 24an bada ere, aste horretako igandean, 27an izango da Santa Barbarako eguna. Mendi ton-torrera igotzen direnek, kafea, gailetak eta anixa pronto izango dituzte nekeari aurre egiteko. Goizeko 9etan, auzoan hildakoen aldeko meza. Errito nagusia, orde, mezaren aurretik egingo da. Bertako pago adar bat erabiliz, lurrak, abereak eta etxeak bedeinkatuko dira lau haizetara. Mezaren ondoren, Kortaberriatarrek traktorean igoa izango duten hamaiketako banatuko da (Udalaren laguntzaz).

'Euskal Herriko Dantza Txapelketa, 1977-2001'

25 urtetan gertatutakoak libururatu dira

Segurako udalaren iniziatibaz, dantzari irabazleen udalei eta zenbait firma komertzialei esker, 25 urte hauetako historia jasotzen saiatu dira Lierni Elorza eta Maixabel Elorza. Liburuaren aurkezpena, XXV. txapelketaren edizioarekin batera egingo da, maiatzaren 30ean, goizeko 11,15etan Koldo Mitxelena Kultur gunean. Herritarrentzat aurkezpen ekitaldi berezia egingo da ekainaren 8an Ardixarrean.

Diseinua Joxemari Telleriak zuzendu du, 90 orrialde ditu eta egunkarietako irudiez gain, 36 argazki azaltzen dira. Lau ataletan banatu dute liburua: 'hitzaurrea' (Dantzarien Elkarteko Lehendakariak), 'Sarrera', 'Bilakera urtez urte' eta 'Protagonistak eta iritziak'. 2.000 ale aterako dituzte eta herriko hainbat lekutan eskuratu ahal izango dira.



Txapelketa frontoi zaharrean egiten zenekoa. Dantzariak bertara sartzen.

Egileek lau hilabete eman dituzte burubelarri liburuaren osatze lanetan. Lortu ahal izan duten informazioa, udaletxetik, Dantzarien Elkartetik, protagonista izan diren dantzariengandik, epaimahaikideengandik eta hainbat herritarrengandik ere jaso dute.

tur etxean. Umeen danborrada: asteazken eta ostiraletan, 17:30ean, Baratze pilotaleku ondoan.

● **Hiru erakusketa Ardixarrean.** Ekainaren 8tik San Joanak pasatu arte. 'Kendu kooperatibaren 25. urteurrena', 'Musika eta pintura' Joxemari Telleriaren lanak eta 'Dantza janzkerak'. Hurrengo alean informazio gehiago.

● La Caixak egindako azterketaren arabera, Hego Euskal Herrian **gizonezko langabetu gutxien** dagoen herria Segura da, %0,2arekin.



Maiatzaren 20an, Ainhua Imazek, Leire Arrietak, Eneko Azpeitiak, Jone Beldarrainek eta Eñaut Arretxek, lehenengo jaunartzea izan zuten Segurako parrokan.



Toka irabazleak

Maiatzaren 6an jokatzen Beheko barruiko Santa Kutzetako toka txapelketa. Gizonezkoetan Antonio Aldanondo geratu zen lehena eta emakumezkoetan, berriz, Ixabel Telleria.



Beasain Igartza hotela ireki da

Maiatzaren 16an inauguratu zen Igartza hotela. Izar bateko hotela da eta Oriamendi kaleko 41. zenbakian dago kokatua. 25 logela ditu. Guztiek ere, aire egokitua, hari musikala, telebista, segurtasuna kutxa, internet sarea eta bainugela dute. Aparkaleku pribatua du Igartza hotelak eta kafetegia handi bat ere bai.

Karlos Garcia izango da hotelaren gestioaren ardura-duna. Momentuan, 12 lanpostu sortu dira bertan.

Goierriko udal agintariak, Goiekiko arduradunak, eta Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko orde-

kariak izan ziren inaugurazio ekitaldian.

Egun historikoa

Beasain, Lazkao eta Ordizia erdigunean ez zegoen hotelik maiatzaren 16ra arte. Beraz, Goiturreko teknikaria den Nikolas Osinalde gustura azaldu zen. *"Goierriko turismoaren-tzat egun seinatua da. Hotel bat hiri barruan edukitzea oso garrantzitsua da, trenetik gertu gainera"*, esan zuen Osinaldek. Goierrik dibertsifikazio ekonomikoari begira egindako apustuan, turismoari dagokionean, emandako fruitua da.

Ekimen pribatuak atera du aurrera Igartza hotela, baina



orain guztioi omen dagokigu, ekimen publiko zein pribatuari, hotela bideragarri egitea. Promozio lana, beraz, garrantzitsua izango da aurrerantz.

Koro Garmendia, Jaurlaritza-ko Turismo sailburuordea ere izan zen Beasainen. *"Goierri, zorionez, ez da nobedadea 12 langileko enpresa berria sortzea. Baina*

nobedadea da enpresa hori turismo arloan sortzea. Beraz, zorionak", esan zuen Garmendiak. *"Turismoa eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da oheak izatea. Turismoarekin gu ezagutuak izatea nahi dugu, eskualdean aberastasuna sortuz"*, gaineratu zuen.

Nekane Altuna

Berriro ere iritsi zaizkigu Loinatzak. Murumendiko Mariren jaitsierak emango die hasiera Loinatz jaiei gaur gauean. Kondairak dioenez, Mari, leizeetako anderea eta iratxo guztien erregina, Murugoena baserriko seme batekin ezkondu zen. Zazpi seme-alaba izan omen zituzten. Bera kristaua ez zenez, ez omen zituen bataiatu. Senarrak ordea, bera eta seme-alabak herriko elizara bataiatzera ekartzen saitu omen zen. Orduan Marik gurdian su hartu omen zuen eta sokak erretaugarretan hegaztatu omen zen honako hau esanez: *"Nee umeek zeruako, ta ni oaiñ Muruako"*. Geroztik Murumendin bizi da Mari, eta jai egunetan bisita egiten du mezuren batekin.

Sorgin edo baserritarrez moztarotuta, kantari, irrintzika eta dantzan hurbilduko da herritar asko 22:30ean Udaletxeko plazara. Mariren jaitciera aldarrikatuko dute su-garren inguruan akelarrea

Murumendiko Marik emango die hasiera Loinatz jaiei

irudikatuz. Loinatz abesbatzak Mariri eskainitako kantu bat abestuko du eta ondoren, plazaren erdian dagoen sua piztuko dute. Mari Murumenditik jaisten denaren antzezpina egiten da, trumoi eta tximistekin batera txalapartaren doinua nahasten delarik. Sutara erori eta erre egiten da Mari. Ondoren, Udaletxeko balkoian azaltzen da eta herritarrak agurtu ondoren, jaietarako aholkuak ematen ditu. Jarraian pizten den suziriarekin ematen zaie jaiei ofizialki hasiera.

Ekainaren 3a arte, bakoitzak bere erara jaiak ospatzeko aukera izango du. Egitarauaren nondik-norakoa 10-11 orrialdeetan duzue. Aurtan, Karlos Buenok egin du egitarauaren azalaren diseinua. Lehiaketara aurkeztu ziren lanak ikusgai izango dira bihartik aurrera Usurbeko

Erakusketa-Aretoa.

Beasain Jaietan eta Paperak

"Beasain Jaietan" urtekaria salgai jarriko da ekainaren 26an. **Beasaingo Paperak 9. zenbakia**, *"Beasain 1900-2000: Ehun urteko historia irudietan"* ere egun berean jarriko dute salgai.

Dantza saio ezberdinak

Beasaingo I. dantza topaketak izango ditugu maiatzaren 27an. Santurtziko Mendialde, Gasteizko Adurtza, Arbonako Primadera (Lapurdi) eta Iruñako Amaiur dantza taldeak auzo ezberdinetatik ibilaldia egingo dute 10:30ean hasita. 18:00etan, dantza-saioa izango dugu Plazan.

V. Dantza Libreko lehiaketa, ekainaren 3an jokatuiko da Loinazko San Martin Plazan.

Udalbatzaren soka-dantza. Beasaingo herriak soka-dan-

tza berreskuratu zuen orain 5 urte. Udal Korporazioak, igandeko meza ondorenean, San Martin Plazan, soka-dantza egingo du. Alkate eta zinegotziek parte hartuko dute. Herriko dantza taldearekin batera prestatu dira.

Eskolarteko bertso txapelketa

Gipuzkoako eskolarteko 21. Bertsolari-txapelketa Ekainaren 1ean ospatuko da 16:00etan Kiroldegian

Erakusleihen lehiaketa

Orain 5 urte hasitakoari jarraiki, dendetako erakusleihen lehiaketan, epaia jendeak emandako botoz eratua izango da. Botoa eman nahi duten pertsona guztiek, Beasaingoak izan ala ez, Segura Irratira deitu beharko dute (943-801041), maiatzaren 29, 30, 31an eta ekainaren 1an eguerdiko 12,30etatik 13,00etara. Botoa ematen dutenen artean erosketak egiteko 8.500 pezetako bi bale zozketatuko dira.



Mendi irteera udaberria agurtzeko

Udaberria azken txanpara heldu den honetan, naturaren edertasunaz eta mendiaren osasungarritasunaz gozatze-ko mendi ibilaldia antolatu du Osinalde elkarteak. Egun guztirako irteera izango da, goizean Gabiriatik irten eta autobusez Aralarko goardae-txera joateko. Han ekingo zaio ibilaldiari, Aralarko par-ke naturaleko paraje zoraga-rrietan barrena Larraitzerai-no.

Luzera, iraupen eta ezau-garri hauekin antolatu den le-henengo irteera da honakoa,

eta aurrera begira toki gehia-go ere badituzte begiz jota. Mendizaletasuna sustatzeko eta indartzeko asmoen arte-an, kirol mota hau egiten du-tenentzat edo egingo lukete-nentzat federatu-karnetak ateratzea ere aurreikusten da, herrian bat baino gehiago baitira mendirako afizioa du-tenak.

Maiatzaren 27a aukeratu dute elkarte-ko mendi saile-koek irteera honetarako, igande honetan, beraz. Osta-tu aurrean, goizeko 8,30etan da hitzordua, eta itzulera

Hauteskundeetako emaitzak

Maiatzaren 13ko Gasteizko Legebiltzarra osatzeko deituta zeuden hauteskundeek honako emaitzak utzi zituzten gurean: EAJ-EAk 244 boto; EHk 64; PPk 9; Ezker Batuak 2; balio-gabe 1. Gainerakoan, partehartze handia nabarmendu behar, 351 laguneko eroldaren gainean (1998an 363koa zen) abs-tentzia %8,83 soilik izan baitzen, Gipuzkoako bigarren ba-xuena Orexaren ondoren.

Udaletxeko hautes-mahaiko lehendakari Usoa Agirre egon zen, eta bokalak Maider Intxausti eta Andoni Maiora.

arratsaldeko 6ak inguruan izango da. Herritar guztiei irekita dago txangoa, eta au-tobuserako izena emateko le-henbailehen Blankari deitu (943 88 63 55).

Emakumeen arteko bazkaria

Urtero herriko nahiz kanpo-tik etorritako emakumeek euren eguna ospatzeko egi-

ten duten bilkura aurtengora-ko ere antolatu da, ohiturari hutsik egin gabe. Ekainaren 10ean izango da geroz eta errotuago dagoen festa, igan-dean. Lagun arteko bazkaria Ostatun egingo da. Joateko asmoa daukatenek bertara hots egin aurreko osteguna, hilak 7, baino lehen (943 88 79 13).

Aimar Maiz



Mendi ibilaldia



Zeraingo Oa Kultur Elkartek datorren iganderako, maiatzak 27, Oamendira mendi ibilaldia antolatu du. Azken urteetan egin den be-zala goiz guztiko ibilaldia izango da, Oamendira igo eta han ogitartekoa jateko gel-dialdia egingo da. Ibilaldia-ren ondorenean Liztormendi elkartean mokadutxo bat ja-teko aukera izango da. Au-rreko urtean bezala kotxez Aizpurura joateko eta Bos-taitzetatik itzultzeko aukera izango da.

Irteera orduak: Oinez: 8etan Zeraingo plazatik. **Ko-txez:** 9etan Zeraingo plazatik

Euria edo eguraldi txarra iza-nez gero ibilaldia hurrengo igandera atzeratuko da.

Dantzako entseguak

San Juan bezperan, suaren inguruan egin ohi den festan dantza egiteko ensaioak ia-danik hasiak dira. Bertan parte hartu nahi duenak, As-telehenetan 18:30ean pilota-lekura azaldu dadila.

Jaunartzeak

Joan zen igandean, maiatzak 20, Iñaki Intxausti eta Laida Alustiza neska-mutikoak be-ren lehen jaunartzea egin zu-ten.

Mari Flor Mendizabal

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

Goierri Bus

Segurtasun eta kalitatezko
zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50

Fax: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak

19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak

Literadunak komunarekin





Zaharkinak erakusketaren inaugurazioa

Maiatzaren 27an, igandea, Pilotalekuan erakusketa ikusgarria inauguratuko da. Bertan Zegamako 50 bat baserrian aurkitutako hainbat altzari eta baserriko bizitzan erabiltzen ziren lanabes bildu dira. Erakusketa hau Gipuzkoako Foru Aldundiko, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuarekin egindako hitzarmen baten bidez ahalbidetu da, proiektua burutzeko arduraduna Arantzadi Zien-

tzia Elkarteko, Etnografia Saileko buru den Fermin Leizaola jauna izan delarik. Luis Mari Bandres, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Diputatua bertan izango da Erakusketari hasera ematen.

Proiektu honen helburu bat herriko gazteek ere berriz baserri era horretako tresnen bilaketa bat egitea da beraiek ere baserriko bizitzarekin harreman esperientzia



izan dezaten eta esan, dozena inguruko talde bat ere ibili dela herriko baserrietan tresna bila.

Proiektu hau gauzatzeko, herriko Jubilatuen Elkartek ere laguntza paregabea eman du, bai materiale bilketan, bai garbiketa lanetan eta erakusketaren zainketarako ere beraien laguntza eskaini dute.

Bestalde ezin ahaztu erakusketa hau burutzeko beharrezkoak ziren herriko baserrietaren borondate eta laguntza, beraiek utzitako 1.500 pieza hauei esker burutuko baita azken finean erakusketa hau. Zegamako Udalaren ize-nean mila esker denoi.

Edurne Albizu

Argazki lehiaketa

2001 urteko San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko asmoz, II. argazki lehiaketa antolatu du Udal Kultur Batzordeak. Edonork har dezake parte. Gaia, Zegama da. Kolore nahiz txuri-beltzezkoak izan daitezke argazkiak. Lehenengo hautaketa, Udal Kultur Batzordeak egingo du, hauek adituen laguntza izango dutelarik. Azken erabakia Gobernu Batzordeak izango du. Saria 30.000 pezetakoa da. Gobernu Batzordeak hala erizten badio, sariketa desertu ere gera daiteke. Argazkia osotasunean baloratuko da: teknika aldetik, egitura, orijinaltasuna, e.a. Lanak aurkeztean, kartazal itxi batean, argazki bakoitzari ezizen bat atzean jarri eta beste kartazal itxi batean ezizen horren identitate datuak sartu. Gehienez 3 argazki aurkez daitezke. Argazkiak aurkezteko epea: 2001eko ekainak 15.

Balkoi eta leihoetako 2. lore apainketa

Herriguneko ikuspegi osoaren txukunketan etxetik egin genezakeenaren garrantzia ikusirik, Udalak etxeetako 2. balkoi eta leihoetako lore-apainketaren lehiaketa antolatu du, baserriak barne. Barietatea, konposizioa eta etxearen kokapena hartuko dira kontuan. Baloratuko den epea: ekainaren 1etik abuztuaren 23rako da. Saria: 15.000 pezeta eta garaikurra. Sari-banaketa San Bartolome eguerdian egingo da.

100 urte

Maiatzaren 23an, 100 urte bete ditu Jesus Merchan Miguelek. Jesus Merchan Zegamara 1980n etorri zen Salamankako Tamames herritik, Zegaman bizi baitziren bere bi alaba. Bere biziorik handiena 98 urte arte berak liatutako zigarroak erretzea izan omen da, gaur egun zigarro modernoak erretzen baditu ere eta purua bada hobe. Bere alabek diotenez oso gizon lasaia eta ixila omen da, beraien ustez patxara horrek eman diolarik hain bizitza luzea. Zorionak eta urte askotararako beraz.

Arantzazura erromesaldia

Ekainak 3, igandea:

8:00etan: Arantzazurako lehen irteera autobusez Apeaderoraino. **10:00etan:** Arantzazurako 2. irteera autobusez Apeaderoraino. **13:00-13:30ak** aldera bazkaria Udalak eskainita. **17:00ak** aldera erromesen azken txanpa Arantzazuraino. **20:00etan** Errosarioa Santutegian. **20:00etan**, Autobusa Zegamara. **21:00etan:** Afaria.

Oharra: Elizako portikuan, ohiturari jarraituz, gastuei aurre egingeko herritarren laguntza jasotzen da, bai larunbateko meza aurretik eta ondoren, bai autobusen irteeretan eta baita igandeko meza aurretik eta ondorenean ere.

Ekainak 4, astelehena:

8:00etan Autobusa Zegamatik Arantzazura. **10:15ean** Goiko Bentan herritarrak elkartu eta Santutegiraino prozesioa herriko agintari eta txistulariekin. **10:30etan:** Meza. **13:30etan:** Bazkaria. **15:00ak** aldera: Zegamara oinez datozenen irteera. **16:30ean:** Zegamara autobusez itzuliko direnentzat irteera. **17:00ak** aldera: Merienda Oazurtzen Udalak eskainita. **18:00ak** aldera: Oinez datozenei ongi etorria San Bartolome Ermitaren ondoan, eta haurrentzat goxokiak. **19:00ak** aldera: Ama Birjinaren ongi etorria Zupurrutin eta bere ondoren Prozesioa San Martin Parrokira sartuko da herriko txistularien laguntzarekin. San Martin parrokian Agurra (Salbea) bertaratuei. **Ondoren**, Kasinoko XIII. Ipuin Lehiaketaren sari banaketa plazan. **19:30ean:** Otarteko eta ardo banaketa udal arkupeetan. **21:00etatik aurrera** afaria Udaletxeko arkupeetan trikitilari-ekin.

Oharrak: Izen-emateak: autobusetarako izena eman eta txartela jaso behar da, maiatzaren 31 aurretik, Udaletxean. (Igande goizekoetarako ezik). Herrian erroldatuek lehentasuna izango dute. Pazkoa bigarrenerako afarirako Udaletxeko arkupeetan tokia hartzeko epea, maiatzaren 31n bukatzen da.

Preferenterako igoera erdietsia

00-01 denboraldiari amaiera borobila eman dio Ordizia Futbol Taldeak. Urte osoan goiko postuetan ibili ondoren azkeneko jardunaldian eman zion errematea, Legazpin Ilintxa taldea mendean hartu eta errejional mailako euren multzoko lehen postua eskuratuaz. Honenbestez preferentean izango ditugu datorren denboraldian futbol taldekoak.

Orain bi urte errejionaleko bigarren mailan bazeuden ere, erreskan bi maila igo dituzte talde gazte eta sendoa osatu ondoren. Jokalariak egindakoez gain entrenatzaile eta zuzendaritzakoek ere izango zuten zer esana emaitza on hauek guztietan.

Denboraldi amaierara igotzeko aukerarekin iritsi nahi zuten ordiziarrek. Hala gertatu da. Kontuan izanda talde bakarrak lor zezakeela zuzeneko igoera, lanak ez ziren batere errazak. Amaikak bat, Ilintxa, Pedrusco... izendun talde pila helburu berarekin. Azken neurketa Legazpin, Ilintxa taldearen aurka. Futbol-zelaia jendez gainezka, bai legazpiar nahiz ordiziar zale pila. Biek zituzten igotzeko aukerak baina horretarako irabazi beharra zegoen. Gauzak honela norgehiagoka entretenigarria ikusteko aukera izan zuten bertaratu ziren guztiek eta lehen zatian Danik sarturiko gola nahikoa izan zen hiru puntuak eskuratu eta preferenterako igoera eskuratzeko.

Honela, beraz, asteburu honetan emango diote amaiera denboraldiari beste multzoko txapelduna izan den Gure Txokoa taldearen aurka mailako txapelduna nor izango den erabakitzeko partidua jokotuta. Zorionak futbol taldekoei eta ea irailatik aurrera preferentean zer nolako lana egiten duten.

Bigarren fasea jokoa

Futbolarekin jarraituz lagunarteko txapelketaren lehen fasea amaitu eta zortzi taldek bigarrenari ekingo diote asteburu honetan bertan. 14 taldek eman zioten hasiera txapelketari eta antolatzaileek bi multzotan banatu zituzten. Ligaxka jokotuta honako taldeak izan dira aurrera egin dutenak. "A" multzoan Zezilio Enea-Badago izan da aurrea eta honen atzetik geratu dira Harriketarrak, Wiskas eta Tximista Sagardotegia. "B" multzoan, berriz, Urbitarte Sagardotegia izan da lehena, Ferrocarril Oeste bigarren, E.R.Matxain Ileapaindegia hirugarren eta Because Rangers laugarren.

Bigarren faserako berriro ere bi multzotan banatu dituzte antolatzaileek 8 taldeok. Lehen multzoan Zezilio Enea-Badago, Harrike, E.R. Matxain eta Because arituko dira eta bigarrenean, osera, Urbitarte, Ferro, Wiskas eta Tximista. Gogoratu neurketak larunbat arratsalde eta igande goizetan jokatzeko diela anexo futbol zelaian.



Rugby taldeko jubenilak Bartzelonan

Espainiako Txapelketako lehen fasea jokatu behar zela eta rugby taldeko jubenilak Bartzelonan izan ziren. Gogo eta ilusioz beterik joan ziren Katalunia aldera, galtzeko ia ezer eta irabazteko gauza asko zituzten eta. Beste taldeko jokalariekin alderatuz gero, ordiziarrek "txikiak" zirela aitortu beharra dago eta joku honetan gorputzaren tamainak duen garrantzia begibistakoa da. Dena den, bereak eta bi eman zituzten ordiziarrek eta Quesos Etrepinarek eta Santboianak taldeen aurkako neurketetan irabazterik lortu ez bazuten ere, azken neurketan Valentziako Tatamiren kontra garaipena lortu eta hirugarren sailkatu ziren. Hurrengo faserako sailkapena Santboianak lortu bazuen ere gustora dira rugby jokalaria. Kontuan izan behar da, gainera, kadete mailako jokalaria ugarirekin aritu zirela eta guztientzat ere esperientzia polita izan zen Katalunia aldean bizi izandako hau.

Bertsos saio polita

Euskal Herriko Txapelketa nagusirako Gipuzkoako sailkapen saioetako bat jokatu zen Herri Antzokian maiatzaren 18an. Bertan, aurretik Bilibonon aritutako Aitor Sarriegi, Jokin Uranga, Estitxu Eizagirre, Nahikari Gabilondo, Nikolas Zendoia eta Alfontso Jimenez bertsolariak aritu ziren. Saio txukuna burutu bazuten ere epaimahikoak zorrotz aritu ziren eta puntuaketa baxu xamarra eman zuten bertaratu zirenen usteen arabera. Azkenik, gainontzeko saio guztietako puntuaketa batu ondoren multzo honetako Aitor Sarriegi beasaindarra izango da udazkenean jokatu den Euskal Herriko Txapelketan parte hartuko duen bakarra.

Txiste eta pasadizo idatzien lehiaketa

Hamargarren urtez jarraian txiste eta pasadizo idatzien

lehiaketa antolatu du Goiztiri AEK-k. Txapelketa honetan edozeinek har dezake parte eta idatzi beharreko txiste edota pasadizoak euskara baituan nahiz euskalkian izango dira. Nahi adina txiste edo pasadizo bidal daitezke, beti ere ekainaren 15a baino lehen. Lanak helbide honetara bidali beharko dira: Goiztiri AEK, Nagusia kalea 5-3, 20200 Beasain. Sariak ez dira nolanahikoak izango, bi afari Beasaingo Urbieta Jatetxean, beste hainbat Ordiziako Txindoki Jatetxean eta beste bi afari Zumarragako Balentiñen.

Unanue bota dute

Txakurtzuloko lanek aurrera darraite eta oraingoan Unanue Gozotegiko lantegiari iritsi zaio txanda. Makinak sartu eta berehala bota zuten eraikina. Orain eraikitze lanei dagokie txanda.

Aitor Calvillo

San Isidro eguna San Gregorion


Giro on eta atsegina izan ziren nagusi San Gregorion joan zen asteartean, baserritarren egunean. Eguraldi ona lagun, hainbat baserritar eta herritar inguratu ziren frontoira. Han izan ziren baita ere, Joxemiel Barandiaran eskolako haurrak. Guztiek ere ikusgai izan zituzten herriko baserritarrek lehiaketara aurkezturiko barazki freskoak.

Ataungo baratzeen osasun onaren erakusgarri dira han ikusitako baba, babarrun, patata berri, ilar, tipulin, azelga, letxuga, perrejil, aza, arto, intxaur, hur eta baratzuriak ere. Produktu berezi gisa Juan Arrondo Imazek aurkezturiko esparragoak eta kalabaza aipa genitzake. Etxean kontserban jarritako tomate eta piperrak ere aurkeztu zituen Joanek. Bestalde, etxean egindako menbrillo eta erroskilak ere ikusi ahal izan genituen Patxi Erauskin eta bere emaztearen postuan. Aipagarria da, baita ere, produktu zein postuen aurkezpena. Beste urte batez, Intxustiberriko Patxi Erauskin eta emazte Bittori Barandiaranek eskuratu zuten 12.000 pezetako lehenengo saria. Juan Arrondorentzat izan zen 2. saria, 10.000 pezeta. Olaldeko Zeferino Auzmendi 8.000 pezeta eskuratu zituen 3. Saritua izatean. Laugarren saria Arratineako Juanita Aierbe Aierberen barazkientzat izan zen eta Olasagastiko Mari Tere Etxeberriarentzat bostgarrena. Bestalde, ziza lehiaketan irabazle Zeferino Auzmendi izan

zen. Baina itxura enbidiagarrria zuten Juanita Aierbe eta Migel Arratibelek aurkezturiko zizek ere.

Herriko artzainek ere izan zuten lekuri San Isidro egunean. Aranberriko Josu Aldasoro, Kotxerako Jose Gandarias, Juan Isidro Sukia, Lizarrustiko Migel Antonio Barandiaran eta Juan Mari Zinkunegiren gaztak dastagai izan baitziren. Aipatu postuez gain, kanpotik etorritako ezti, kontserba, lore, ukendu eta euskal produktuen saltzaileak ere bertaratu ziren.

12etako meza eta sari banaketaren ostean, Pelotazale elkartearen elkartu ziren herriarrak. San Gregorioko etxe-koandreek prestaturiko bazkariarekin San Isidro eguneko ekitaldiei amaiera emanaz.



Jentilen bideetatik iraupen luzeko mendi ibialdia

Datorren ekainaren 24rako, igandea, iraupen luzeko mendi-ibialdia antolatu du Ataungo Kirol Elkarteak. Mendi ibialdia 10-11 ordukoa izango da eta Auzoeta Udal Kiroldegitik abiatuko da goizeko 6etan. Ibilbideko punturik garrantzitsuenak grafikoa ikus baditzakezue ere, datozen zenbakietan emango dizkizuegu horren argibide eta xehetasunak.

Bestalde, taldeak 2 edo 3 lagunekoa izango dira eta izen-ematea, 1000 pezeta, telefonoz zein posta elektronikoz egin ahal izango da. Telefonoz 943180250 (Xabi), iluntzeko 19:00etatik 21:00etara. Posta elektronikoz dornain@euskalnet.net. Izena irten baino ordubete lehenago emateko aukera badago ere, aurrez egitea aholkatzen dute antolatzaileek. Gainera, herrian ditugun zerbitzuek aurreko egunean etorri eta gaua bertan pasatzeko aukera eskaintzen digute: Lizarrustiko parketxea 943582066 edota San Martingo Gabrielene aterpetxea 943180034 / 656410166 (Joan Mari).

Labur-labur

● **Abelino Barriola saria 3. mailakoentzat**
2000-2001 ikasturteko Abelino Barriola Deklamazio lehiaketan Joxemiel Barandiaran eskolako 3. Mailako 9 ikasleek irabazi dute, 3 eta 4. Mailako kategorian.


Lehiaketa honekin ikasleek darabilten ahozko euskararen kalitatea eta bizitasuna neurtu nahi da. Horretarako neska-mutilen ahotsekin egindako kaseteak aztertzen dituzte epai mahaikoek. Bertan, Hezkuntza sailak ezinbestean bidalitako irakurgaiak gain, eskola bakoitzak aukeratutako prosa eta poesiako bina lan grabatzen dira. Lan horren ondorio da jaso berri duten saria. Pozik dira Jexux Goikoetxea irakasle duten

3. mailako ikasleak. Izan ere, Ipar Euskal Herrira bidaia egingo baitute urriaren 8tik 11ra, euren lanari esker.

● Heriotzak

Joan den asteartean zendu zen Lauztiazpikoko Diego Auzmendi. Hurrengo egunean berriz, Aralegi baserriko Maria Begiristain. Doluminak bi sendiei.

Agurtzane Bikuña



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak guztioi!

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN

Igaratz


Ileapaindegia

Estetika

Solariumak

Masajea

*Jai zoriontsuak
guztioi!*



☎ 943 883 180

Nafarroa Etorbidea, 6

BEASAIN



NATXO

Elikadura Naturala Belardenda

Jai zoriontsuak guztioi!

**Naturopata
estetiziena
masajista
egunero**

MEDIKU ZERBITZU ESPEZIALIZATUA

- Txaro del Teso: NATUROPATA
- M^a Jose Gonzalez: MASAJISTA - AKUPUNTOREA

*Seriotasuna,
profesionaltasuna eta
aukera ezberdinak
aurkitu nahi badituzu*

☎ 943 16 21 10

Nafarroa Etorbidea, 5

BEASAIN

Mihitik joango zara

Orain, zure Movistar Activa packa

deietan **15.000 pta.** **arte***

hitzegiteko nahi duzun arte.

*01/05/31 arteko eskaintza, promozioan ditugun terminalen arabera (Philips Savvy Vogue, Siemens C35i, Trium Mars eta Aria modeluetan).

+ 4.000 **+ 10.000** **+ 1.000**

(hasierako saldoagatik)

(eskaintzagatik)

(kupola bidaliz gero)

Karga ezazu zure

MOVISTAR ACTIVA packa
internetaren bidez

• Hemendik aurrera zure Movistar Activa internetaren bidez karga dezakezu.

• Eska itzazu zure klabe eta kontratua **movitel 2000**ren edozein dendatan, nabegatzen zauden bitartean zure mugikorra kargatzeko



movitel2000
Mugikortasun digitaleko zentroak

Toribio Alzaga - (junto a Arcco)-**DONOSTIA**-Tel.:943 46 09 63
Oriamendi-Etxe Ubi-(frente a la Caja Laboral)-**BEASAIN** -Tel.:943 80 50 89
Biteri Etorbidea 15 - 20200 -**ARRASATE** - Tel.: 94377 21 33
Irunlarrea,6 (esquina Avda.Barañain)-**IRUÑEA**-Tel.:948 19 70 72

www.movitel.com - movitel.2000@movitel.com

Banatzaille Ofiziala:

**Telefonica
MoviStar**

Sustapenak 2001eko Maiatzaren 31 arte balioko du

Etxebizitza berriak

Udalak, 5.1 poligonoan (Kiroldegi ondoan dagoen zelaietan) egingo dituen 24 etxebizitzak zozketa egin du. Apartamentuak, 3 gelako pisuak eta duplex modukoak erosteko izena eman zutenetik, zortzi geratu dira aukerarik gabe.

Zozketa eginda, Udalak prest du etxebizitza berrien aurre proiektua, eta lanak udan hastea espero dute. Udalak egingo duen eraikinaren aldamenean, antzeko beste bat egingo du eraikuntza enpresa batek. Bietarako lanak batera hastea espero da.

Eraikinak bukatutakoan, Udalak, ingurua urbanizatzeko asmoa du. Goiko Kalbarioko ermitaren inguruan plaza berria eraikiko dute.

Kale nagusiko lanak

Gasa herrira zabaltzeko Repsol egiten ari den lanak, herri

gunera iritsi dira dagoeneko. Udaletxera bitartean egin dute zanga. Orain, Benta Txikitik behera, plazara bitartean lanak bukatzen ari dira.

Gasa bideratzeko hodiarekin batera, Udalak kablea herrian zabaltzeko azpiegitura jartzea erabaki du. Etorkizunean, kable bidezko telebista edo bestelako komunikazio sistemaren bat ezarri nahi izanez gero lanik handiena eginda egongo da.

Udarako lanpostuak

Uztailean herrian antolatzen den "Uda kanpaina"rako monitorea kontratatatzeko deialdia egin du Udalak. 5 eta 13 urte bitarteko neska mutikoekin burutu beharreko programan aurkeztu beharko dute interesa duten herritarrek. Banaka edo taldeka egin daitezke proposamenak, horretarako epea ekainaren 5ean bukatuko da.



Gazta Eguna

Gazta egunaren balantze baikorra egin du Gazta Batzordeak. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, jende ugari bildu zen Idiazabalen. Estreina-koz, gaztarik onena eta posturik dotoreena aukeratzeko modua izan zen. Jendeak emandako botoek herriko artzainak saritu zituzten. Gazta onena, bisitarien ustez, Domingo Goiburuk egindakoa izan zen. Posturik dotoreena, berriz, Aranburu anaiek apaindutakoa. Antolatzaileek, datorren urtean ere jendeari erabakitze aukera ematea aurreikusi dute, hala ere aukeratzeko modua hobetu beharra azpimarratu dute.

Gaztaren egunean, Katluniako Seu D'urgell herriko

ordezkaritza ere izan zen Idiazabalen. Herri horretan, urrian egiten duten gazta egunari buruz hitz egin eta bertarako gonbitea egin zuen Ana Martí alkate ordeak.

Hauteskundeak

Maiatzaren 13an, Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskundeetan ondoko emaitzak izan ziren:

	2001	1998
EAJ/EA	1002	762
EH	310	345
PP	77	93
PSE-EE	42	31
IU/EB	21	15
Zuri	6	7
Balio gabekoak	1	1
Abstentzioa	%15	%24

Xabier Urteaga

URBITARTE
tolare
sagardotegia



Txotx denboraldia zabalik

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



Uda 2001 prest

Uda gero eta gertuago daukagu eta dagoeneko Uda 2001 kanpaina prest dago. Sei kirol eta ekintza ezberdin egin ahal izango dira uda honetan.

Udako jarduerak: uztailaren 2tik 20ra, 10:00etatik 13:00etara, 3 urtetik 12 urte bitarteko haurrentzat. Plazak: 90. Matrikula: 1.500 pezeta.

Aerobic: uztailan, astean hiru egunez, goizez eta arratsalde. 13 urtetik aurrera.

Piragismoa: uztailaren 9tik 13ra, 10:00etatik 14:30ean. Plazak: 30. 3 talde: 4, 5, eta 6. mailakoak; 7. eta 8. mailakoak; eta 14 urtetik 18 urte bitarte. Matrikula: 1.500 pezeta.

Tenisa: uztailan edo irailean. Plazak: 30. 2 talde: 11 urtetik 18 urte bitarte; eta helduak. Matrikula: haurrak 1.500 pezeta eta helduak 2.500 pezeta.

Defentsa pertsonala: Uztailan, 10 orduko ikastaroa, goi-

Haurren jardueretarako begiraleak

Uda 2001 udako kanpaina barnean, beste urteetan antolatutako bezala, haurrentzat uztailean goizez, jarduerak antolatuko dira. Jarduera hauen iraupena uztailaren 2tik uztailaren 20ra arte izango da. Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.

Begiraleak behar dira ekintza hau aurrera eramateko. Baldintza hauek bete beharko dituzte: Zaldibian erroldatua egotea, 18 urteak beteak izatea edo 2001ean betetzea, eta euskara ondo menderatzea.

Interesatuak izena Kultur etxean ekainaren 7a baino lehen eman behar dute.

Tenis ikastarorako monitorea

Uztailan, Uda 2001 kanpainaren barnean, tenis ikastaroa antolatu nahi da. Horretarako, tenis monitorea behar da. Honako baldintza hauek bete behar ditu: Zaldibian erroldatua egotea eta euskara ondo menderatzea.

Izena emateko, Kultur etxera jo behar da, ekainak 7 baino lehen.

zez edo arratsalde. Plazak: 30. 2 talde: 10 urtetik aurrera eta helduak. Matrikula: haurrak 1.000 pezeta eta helduak 2.500 pezeta.

Zalditegia: Uztailan, goizez. matrikula 3.000 pezeta.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi*

Hauteskundeak

Maiatzaren 13ko hauteskundeetako emaitzak hauek izan dira:
EAJ-EA: 457.
EH: 441.
PSE-EE: 50.
PP: 49.
EB-IU: 25.

IBAI-ONDO AROZTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gastainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

IÑAUSTI KARROZERIA



N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 **OLABERRIA**



ARANDIA
Garajea

LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47
AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA

MUGAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5
☎ eta faxa: 943 88 86 88
☎ mugikorrak: 619 46 22 65
eta 619 46 22 68
ORDIZIA



Irene Hurtado

Gipuzkoa gehienez jaso diren edozein & edozer izenordain zehaztugabeak eta zer edo zer, noiz edo noiz tankerako izenordainek besterik ez dare Goierri; eta indarra due ari izan aditzek eta ozenen ondoko txistukariek afrikatzeko joerak (jan'tzon 'jan zuen', jun'tzien 'joan ziren', ean'tzon 'edan zuen'). Izan ere, gogoan izan behar degu, XVIII. mendean geroztio, Gipuzkoako eta, bereziki, Beterriko euskera izan dala lehentasun, indar eta prestigio gehien izan dituan hizkerea, eta horren eragirik bete-betean hartu dola aztergai degun eremue.

Berriz, Euskal Herriko erdiguneti zabaldu diren hainbat berrikuntza ez dire Goierri iritsi; hain zuzen,

honako hauek: [j] eta [b] epentesiek (ogiya / diruba); ala / edo hautakariak > edo; hitz-oiñe -a bokalez bukatzen danean, -a + a muga-tzaillea Æ -a (patata, bizikleta); ea > ia eta oa > ua disimilazioak (jendia / litrua); partitibo, partizipio, perpaus konpletibo eta moduperpausetako -(r)ikan, -(e)nikan eta -(e)larikan aldaerak (bakarrikan, jateikan 'jaterik'); ablatibo eta motibatiboko -(e)tikan, -(e)gati-kan aldaerak (leiotikan 'leihotik', zeatikan 'zergatik'); 3. pertsonako -te pluralgilea (dute, diote); -ki aditz-atzizkie (izaki, ibilki); partizipio analogikoak (izandu, egondu); Nor-Nori-Nork-en ordeaz Nor-Nork sailleko adizkiek erabiltzea; bait- aurrizkie...

Gaiñera, berrikuntza horietako batzuk eremu zabaltara ailegau dire, hala no-

Goierriko hizkera (eta II)

la, Gipuzkoako ipar-mendebalera, Deba ibarrera, Bizkaiko ekialdera, Nafarroako iparraldera eta Lapurdiko kostaldera. Baiña, horietatik gehienek Tolosan due buka-erea; beraz, bazterrean gerau da maiz aztertzen ari geran alderdie.

Bestalde, Tolosaldeko hegoaldea batzuetan Goierriekin bat eginda sumau degu, bereziki Goierriko sortaldearekin; baiña, itxura danez, gero eta gehiago leratzen da Tolosa aldera. Aurreko mendeetako lekukotasunek aztertuta, argiago azaltzen zaku Tolosaldeko hegoaldeak Goierriekin eduki don loturea eta Tolosaldeko sartaldeak Urolaldearekin izan dona. Antza, Tolosaldeko hego-sartaldea mendebaleko hizkerekiko alkatzen zuen hizkuntza-ezaugarrietatik asko ezkutu egin dire bertatitio. Izan ere, gaur egun Goierriko desagertuta daren edo sartaldean besterik gorde ez diren mendebaleko ezaugarri batzuk aurreko mendeetan Goierriko erdialdean ere erabilli ziren: erakusleek sustrai bera izatea singularran eta pluralean; aditz-izenetako -tzé(e)n eta -ten ingurune zabalagoan; parti-

zipioetan gazt. -idu > -idu; bi izenaren eskubitara jartzea...

Hala, bada, badirudi erdialdeko —Beterriko, Tolosako— ezaugarriek aurrera egin duela eta egiten ari direla Goierri eta Tolosaldeko hego-sartaldean; eta, neurri berean, mendebaleko ezaugarriek atzeraka ibilli direla eta doazela. Leikeana da Goierri eta Tolosaldeko hego-sartaldean dagoan joera horrekin hizkuntza-aurreiritzien auziek zerikusirik izatea. Hain zuzen, Goierriko prestigio eta itzal handiko hizkerak ditu aldamenen: Beterriko hizkerea eta Tolosako euskera garbie.

Bukatzeo, gogoan izan daigun hizkuntza-billakabideak aztertzean, toki jakin bateko biztanleek zein alderditako lagunekin dituen harremanak eta norako joerak dituen jakitea izaten dala garrantzitsua. Itxura danez, orain dala gutxi arte, Arabara zein Nafarroara doazen bideak ibilli ditue maiz goierritarrek, hain zuzen, Agurain aldera eta Gasteizera doazenak, eta, hartueman horrek bere lortatza utzi do hizkuntza-gertakizunetan.



LAZKAOKO
MAIZPIDE
euskaltegia
barnetegia

2001eko UDA

✓ URRATS ETA MAILA GUZTIAK

Alfabetatzen
Hizkuntz eskakizunak
Alfabetatze teknikoak
Sakontzen
IRALEko goi-mailako ikastaroak

HABEren dirulaguntza.

UZTAILA: 2/20
ABUZTUA: 6/31
IRAILA: 3/28

✓ 6 IKASTORDU EGUNEAN, BARNETEGIAN NAHIZ KLASAK BAKARRIK

INFORMAZIO GEHIAGO Tel.: 943 88 92 31 - 943 88 92 32
e-posta: maizpide@lazkao.euskalnet.net

XXVII. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK



Haurrek gogotik gozatu zuten Kilometroak-en haur parkean

Eguraldia lagun, Beasaingo eta Goierriko haurrek gogotik gozatu zuten Kilometroak 2001ek antolatutako haur eta gazte egunean. Beasaingo aisi eta gazte taldeekin batera antolatu zuen Ikastolak eguna.

Giza futbolina, puzgarria handiak, karts-ak, aurpegi margoketak, kilikiak... denetik izan zuten haurrek gozamenerako. Martxel magoak ere txikiaren arreta bereganatu zuen. Baita gozatu ere.

Herri bazkarian ere giro ona izan zen. Oso goxoa omen zegoen bai bazkaria



eta bai txokolatea ere. Iluntzeko kontzertua, Doktor Deslaï taldea, izan zen, arrakastarik gutxiena izan zuen ekitaldia. Dena den, antolatzaileak gustura



daude izandako erantzunarekin. Era honetan Txilibutxof, Kimuak, Gazte Asanblada, kale hezitzailea, Arrano Kultur Elkarte eta Batzokiari eskerrak

eman nahi dizkie Beasaingo Ikastolak, guztien artean, elkarlanean, egun hau antolatzea posible egin dutelako, Ikastolen eta euskararen alde eginez.



Andramendi. Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.

Tel/fax 943 88 96 17

E-posta: beasain@ikastola.net

BEREZIARTU TAPIZTEGIA

Kale Nagusia, 9

© 943 88 04 98

BEASAIN

Bai Bai
Pub
Jai zoriontsuak!
BEASAIN

ASTI
PUB
Jai zoriontsuak!
Zaldizurreta kalea
943 88 45 06
BEASAIN

Pascual
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nafarroa Etorbidea, 17
943 882 248
BEASAIN

- Ile tratamenduak (dohaineko analisisa)
- Dermokapilar masaia
- Koloretan azken teknikak
- Produktu gama zabala

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Loinatz jaietan ere, Kilometroak 2001

Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketa

Ekainaren 1ean, arratsaldeko 4etan hasita, Beasaingo Antzizar kiroldegian, 21. Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketako finala jokatu da, Kilometroak 2001ek antolatutik. Haur eta gazteenak lehiatuko dira, bat-batean, nahiz idatzizkoan. Kanporaketak jokatzen ari dira aurretik eta lerro hauek idazterakoan, beraz, finalerako emaitzarik ezin eman.

Kilometroak materiala salgai

Loinatz jaiak aprobetxatuz, Zubimuzu plazan, Kilometroetako materiala salgai jarriko da. Moda-modako arropak guztiak ere.

Kilometroak ardoa

Loinatz jai hauek ere, Kilometroak ardoa edanez ospa ditzakezue. Beasaingo tabernetan eskuragai duzue Arabar Errioxako ardo beltza, urtekoa.

Autoaren zozketa

Errifak saltzen hasi dira dagoeneko Kilometroetakoak. 250 pezetaren truke, Mazda Premacy autoa zozketatuko da.



Herriz herri

Gero eta gutxiago falta da Kilometroak jairako eta urte guztian zehar, han eta hemen, Kilometroen publizitatea egiten ari dira Ikastolakoak, Gipuzkoako herri ezberdie-tan, materiala salduz. Ekainean irteera hauek egingo dituzte: ekainaren 2an, Legazpi, Ibarra eta Bergaran; 3an, Orion, Asteasun, Bergaran, Lezon, Anoetan eta Larraitzen; 6an, Ordizian; 9an, Lasarten; 10ean, Oiartzun, Larraitz, Arantzazu, Ibarra, Orio eta Oreretan; 16an, Elgoibarren; 17an Donostia, Oñati, Anoeta, Andoain, Larraitz, Arantzazu eta Andoianen; 23an, Tolosan; 24n, Hernani, Andoian, Eibar, Urretxu, Larraitz, Arrasate, Zumaia, Eibar eta Arantzazun.... Inork lan honetan lagundu nahiko balu, jar dadila harremanetan 943 164177 telefonora deituta.



Andramendi. Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.

Tel/fax 943 88 96 17

E-posta: beasain@ikastola.net



DEKORAZIOA



Kale Nagusia, 20
Tel./Faxa: 943 16 00 54
BEASAIN



ILEAPAINDEGI
MISTOA

Festa onak pasa!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 943 16 11 05 BEASAIN

ETXEBE
TABERNA



Festa onak pasa!

Zaldizurreta kalea
BEASAIN

Aritz Zumeta beasaindar arkularia:

"Pultso ona izatea baino garrantzitsuagoa da teknika lantzea"

Aritz Zumeta 20 urteko beasaindarra Euskadiko txapelduna da arku-tiroan. Edozein adinetan praktikatzeko egokia den kirol ez hain ezagunaren inguruan zertxobait ikasteko berarengana jo dugu.

- Zer dela eta zabilta arku-tiroan?

- 95ean hasi nintzen. 8. maila bukatzean ikastaro bat egin nuen, gustatu zitzaidan eta jarraitu egin nuen. Zale-tasunagatik hasi nintzen eta sariak irabazten hasi ondoren serioago hartu nuen kirola. Ez da futbola bezala profesionala egin eta dirua irabazten hastea, hemen gastua izaten da gehiago. Bidaia, hotelak eta dena guk ordaintzen ditugu, oso laguntza gutxi dago. Arku-tiroa oraindik ez da kirol olinpikoa eta hori dela eta beste kiroletan baino askoz diru-laguntza gutxiago



dugu.

- Entrenamendu asko eskatzen duen kirola al da?

- Ni astean 4 egunetan 2 ordu t'erdiz aritzen naiz. Ez gara denbora guztian tiro ariketak egiten aritzen. Gure artean oso giro ona dago eta hizketan aritzen gara. Puntan ibiltzeko ordu asko dago aritu beharra. Munduko txapeldunak zioen berak egunero entrenatzen zuela, igandeetan ere bai. Goizean korrika egi-

ten zuen, ondoren tirada oso bat eta arratsaldean beste tirada oso bat. Baina bera horatik bizi da. Gure kasuan jende asko lanetik nekatuta etortzen da, gezi batzuk jaurti eta erlajatzten aritzen da.

Esaten dute fisikoa lantzea ona dela, gorputzak fondo gehiago hartzen duela eta gutxiago nekatzen zarela, baina ez dugu horretarako denborarik. Gimnasioan pesak egiteak ere lesioak ez

izateko laguntzen du baina-guk geziak jaurtitzea bakarrik egiten dugu. Entrenamendu modua ere ez dugu egokiena, geziak jaurti eta jaurti ez dugu teknika asko lantzen, punteria bakarrik lantzen dugu.

- Zein irakasle izan duzu?

- Hasiera hasieratik nire irakaslea Ander Telleria izan da. Berak esaten dit beti zer egiten dudan ondo eta zer gaizki. Berak egiten dit jarraipena.

- Gazteen mailatik nagusien mailara pasa eta lehenengo urtean Euskadiko txapela lortu zenuen.

- Ondo jaurti nuen egun horretan baina nik badakit bes-teen mailara iritsi nahi badut asko dudala hobetu beharra. Buruak zer ikusi handia duenez, gazte baten aurka jendea konfiatu egiten da, eta atzetik ikusten direnean urduri jarri. Finalean norgehiagoka bi pertsonen artean denez, hor edozer gerta liteke, urduritasunak zer esan handia du.

Jai zoriontsuak denoi!

Oiarbide

San Inazio, 14
☎ 943160434
BEASAIN

Laskurain, 12
☎ 943653786
TOLOSA

Oinetakoak

KiTTō

ITURRALDE, 1
BEASAIN
☎ 943 16 19 39

OSINBELTZ

ZALDIZURRETA, 1
BEASAIN
☎ 943 16 19 35

RICKLER

✓ Ileapaindegia
✓ Edergintza
✓ Solariuma

JAI ZORIONTSUAK DENOI!

Nafarroa Etorbidea, 37
☎ 943 88 02 97
BEASAIN

Pub **XUBER** Pub

Loinazko Festak ospatzen
Xuber zuekin!

Zaldizurreta K. BEASAIN

- Beraz, nerbioak kontrolatzea garrantzitsua da.

- Bai, gainera final asko jokatatu ondoren ere oraindik urduri jartzen naiz. Eta nik us-te dut gutxi edo gehiago denok izaten ditugula nerbioak.

- Aurtan berriro ere Euskadiko txapelkun?

- Zaila ikusten dut. Ez da ezinezkoa, baina bakarrik irabazten du.

- Arkulari bezala zein helburu dituzu?

- Aurtan espero dut Euskadiko txapelketan lehen 3 edo 5etan sartu eta Espainiakoe-tan lehen 32etan sartzea. Orain arte Espainiako txapelketetan oso gaizki aritu izan naiz.

- Munduko txapelketetan izan al zara?

- Euskadin maila handia dago. Ni adibidez, junior mailako munduko txapelketan izan nintzen 1998an. Esperientzia polita izan zen.

- Kirol garestia al da?

- Hasieran, material guztia erostea nahiko garestia da. Nik, hasi nintzenean, 2. eskuko arkua 30.000 pezeta ordaindu nuen eta denetara 50.000 inguru gastatu nuen. Hasteko ondo dago baino gero, lehiaketetan aritzeko bes-

te arku mota bat behar da. Arku on bat 130.00 eta 180.000 pezeta artean kostatzen da. Geziak dozena bat tutuk 40.000 pezeta balio ditu, gero puntak eta lumak erosi behar dira. Nik dudan ekipo guztia 250.000 pezeta inguru kostatuko zitzaidan, baina orain geziak erosten bakarrik gastatzen dut. Lehiaketan gutxienez 6 gezi behar ditugu bakoitzak bere kolore eta izenarekin.

Mundialean bakoitzak bi arku izaten zituzten, baina dena ordainduta. Gu, berriz, bakoitza bere arkuarekin joan ginen.

- Beasaingo festetan zein txapelketa duzue?

- Espainiako hainbat lekutan egingo dira tiradak eta emaitzak Madrila bidaltzen dira ranking-a egiteko. Ez da txapelketa, ez dago saririk, sailkapen hori egiteko da.

Beasainen irailean 'Loinatx saria' egiten dugu. Ez da tirada normala izaten, ezberdina izateagatik distantzi ezberdinetan egiten dugu. Inguruko herrietako jaietan erakustaldiak egiten ditugu eta jendea gustora egoten da begira. Ikusleek probatzeko ere eramaten ditugu arkuak eta adin guztietako jendea animatzen da.

Zer da arku-tiroa?

Bi modalitate daude: arku konposatua eta olinpikoa. Konposatua poleadun arkua da, Aritzek erabiltzen duena. Olinpikoa, berriz, betikoa, soka bakarrik duena. Olinpikoa korearrak dabilta punta-puntan eta konposatuan estatu batuarrak eta europarrak.

Konposatuan hasieran indar as-

ko egin behar da soka teinkatzeko, baina gero lasaitu egiten da eta errazagoa da apuntatzeko, olinpikoa, berriz, denbora guztian egin behar da indarra eta zailagoa da. Olinpikoa hartzekin jaurtitzen da gezia eta konposatuan disparadore bat izaten da gezia garbiago ateratzeko.

Lehiaketetan lehenengo parte hartzaile guztiek 150na gezi jaurti eta ranking-a egiten da. Partaide kopuruaren arabera erabakitzen da zenbat sartzen diren finalean. 16 baino gehiago badaude 16 sartzen dira finalean, 32 baino gehiago badaude 32 eta 64 baino gehiago badaude 64. Adibidez 16-ek finala jokatzen badute, lehenengo 16.aren aurka bigarrena 15.aren aurka eta horrela buruz buru jokatzen dute.

Salakoan 18 metrotatik jaurtitzen da eta diana txikiagoak dira, puntu ezberdintasuna ere txikiagoa izaten da. 4 paretan barruan sartuta aritzen dira. Aire librean 4 distantzi ezberdinetatik jaurtitzen dira geziak 30, 50, 70 eta 90 metrotatik. 70 eta 90 metrotara dianak 122 cm izaten ditu. 30 eta 50 metrotako diana txikiagoa izaten da. Finala 70 metrotara izaten da.



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia



Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN

LURRAZPIKO JAIA !!



ARANA, 1 ☎ 943 88 93 88 BEASAIN

IRUDI - Foto, S.L.

Javier Fernández Sánchez
San Inazio kalea, z/g
BEASAIN
Tel./Faxa: 943 888 100



Festa onak pasa!



Usurbe
INPRIMATEGIA

Tel./Faxa: 943 88 63 63
Joan Iturralde, 7 BEASAIN



Success
by
COMPETENCE
trodat

Diseinu grafikoa
Enkuadernaketak
Serigrafian inprimaketak
Kautxozko zigiluak
Bobinetan etiketa itsaskorrak
Inprimaki komertzialak orokorrean

Mikel Gaztañaga Itsasondoko txirrindularia

"Pistan etorkizun hobeia dudala diote, baina oraindik nahiago dut errepidean segitzea"

Maiatzaren 26an, 23 urtez azpikoen txirrindulari lasterketa jokatu da Itsasondon, lehenengo aldiz. Herritar bat bertan izango da: Mikel Gaztañaga. 21 urte ditu. Afizionatuen mailan 4 urte daramazki. Errepidean ibiltzeaz gain, pistan ere aritzen da Gaztañaga, eta aurtengo Euskadiko Sei Orduetan protagonista izan zen itsasondoarra.



Herritarren babesa izango du Mikel Gaztañagak Itsasondoko lasterketan.

Caja Rural taldeko txirrindularia da Mikel Gaztañaga. Abiaduran nabarmentzen da eta esprintetan ondo ibiltzen da. "Baina txarrena zera da: hemengo lasterketa guztiak oso aldapatsuak direla. Beraz, portuak ondo pasa eta esprinterako indarrarekin iritsi behar naiz. Urtetik urtera hobetzen ari naiz. Aurtengo urte hobeia daukadan", esan digu itsasondorrak. Iazko urtean lau bigarren postu egin zituen.

Kirolari guztien ametsa du Gaztañagak, profesionalaraino iristea. Dena den, zaila ikusten du. "Oso gutxi pasatzen dira profesionale-

tara. Espainian talde gutxi daude eta Euskal Herrian bakarra. Euskaltelera 3 bat pasatzen dira. Estatu Espainiar guztian 500 bat afizionatu egongo gara. Urtean 10 pasata aukera gutxi dago".

Pistan bikain

Pistan ere aritzen da Mikel Gaztañaga. Aurtengo Euskadiko Sei Orduetan, bertan parte hartzeko aukera eman zioten, profesional onenen ondoan. Bera izan zen gainera protagonista nagusia. Bi proba irabazi zituen. "Euskadiko Sei Orduetan korritu behar nuela esan zidatenean oso kontentu gelditu nintzen.

Euskal txirrindulari gutxi eramaten dituzte, normalean espainiarrak eramaten dituzte. Aurtengo urteko jendea eramatea pentsatu dute. Aukera eman eta oso ondo ibili gara denok".

Hain ondo ibiltzea espero al zuen galdetu diogu: "Beti ikusle bezala joaten nintzen. Esprintetan fijatzen egoten nintzen, nik nola egingo nukeen pentsatuz. Abiadurako proban ondo ibiltzea pentsatzen nuen baina irabaztea ez", aitortu digu.

Errepidea nahiago

Gaztañagaren ezaugarriak nabarmena abiadura bada

ere, sekula ez omen da oso pistazalea izan. Errepidea gehiago gustatzen zaio eta pistan, batez ere neguan aritzen omen da, entrenamenduetan.

"Pistan etorkizun hobeia edukiko nukeela esaten didate, baina oraindik nahiago dut errepidean segitu. Gero ere badaukat denbora", aitortu digu.

Herrian Jokin Mujika eta Aitor Garmendia txirrindulariak izan dituzte idolo eta errepiderako zaletasuna handiagoa izan omen da.

Mikel Gaztañagak esan digunez, pistan ikasteko asko dauka. "Pistan gutxi ibili naiz eta teknikoki ez dakit gehiegi. Pistan hasteko esaten didate baina pistan hasiz gero errepidekoa utzi beharra daukat".

Pista espezialitatean jende gutxi dabil eta horrek nolabait etorkizuna ere ziurtatuko lioke. "Pistan oso jende gutxi aritzen da. Espainiako selekzioarekin joateko ez dago jende gehiegirik eta pixka bat saiatuz gero etorkizuna eduki daiteke".

Era batera edo bestera, errepidean nahiz pistan, itsasondorrak alboan izango ditu Mikel Gaztañagak.

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA



YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17


**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**



VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babesteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).


NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK



sukalderik goxoenak

Inaugurazioa Maiatzaren 26an eguerdiko 12etan.
Mariarats 10 Beasain Tfno/Fax 943 88 86 84




TXINDOKI-ALKARTASUNA BHI

Ugartemendi 6, 20200 Beasain, Tel: 943 88 07 53

GOI-MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK INFORMATIKA-SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

GOI-MAILAKO ZIKLO FORMATIBOA INGURUGIRO TEKNIKARIA

Iraupena: 1400 ordu



IZEN-EMATEA	MATRIKULA
Ekainaren 1etik 12ra Email edo Faxez egin daiteke Email: txindoki@jet.es	Uztailaren 2tik 6ra Uztailaren 23tik 27ra Faxa: 943 16 10 48

zinea

ORDIZIA:

'El espinazo del diablo'.

Ostirala 25: 22:15.

Larunbata 26: 19:30 - 22:15

Igandea 27: 19:30 - 22:15

Astelehena 28: 19:30.

'Mi perro Skis'.

Igandea 27: 16:45.

Maiatzak 27, Selektah Kolektiboa eta Servicio Se-kreto, txosnatan, 24:00etan.

Ekainak 1, Lif, Leher eta Lisang, txosnatan, 22:30ean.

LEGORRETA:

Maiatzak 26, Egan, 23:30ean.

bestelakoak

BEASAIN:

Maiatzak 28, Txan magoa, txosnatan, 20:30ean.

musika

BEASAIN:

Maiatzak 25, Grupo salvage, Obligaciones, Vincent Bon Reverb y sus baqueros electricos eta Geesrrings, txosnatan, 22:30ean.

Poltsikoko ikuskizunak Ordizian

Gaur bertan hasita, maiatzak 25, Ordiziako Udalak antolatutako Poltsikoko ikuskizunak egitarauaz gozatzeko aukera izango da. Hamargarren edizioa beteko du aurren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzaz antolatzen da. Ikuskizun guztiak Barrenan izango dira, 22:30ean. Sarrera 500 pezeta kostatuko da. Egitaraua duzue jarraian:

Maiatzak 25: Jazz kafe-kontzertua, Gonzalo Tejada (kontrabaxua) eta Mikel Andueza (baxua).

Ekainak 1: Kafe-antzerkia: 'Libertad clowndicional', May Gorostiaga artistaren proposamena.

Ekainak 8: Jon Maia eta Xabier Amuriza, 'Mende baten aldarriak hogeigarrenean jarriak'.

Ekainak 9: kafe-kontzertua: latin-jazz, bolero, son, trova.. Jamila (abeslaria) eta Jinmy Bidaurreta (pianojolea).



Easo Gregoriano kaperak Ataunen

Easo abesbatzaren Gregoriano kaperak emango dio hasiera datorren ekainaren 2an, larunbata, aurtengo Otso Festari. Tamainako emanaldia San Martingo elizan izango da. Iluntzeko zortzietako mezan bizpahiru kanta abestuko ditu kaperak eta ondorenean, bederatziak laurden gutxi aldera eskainiko du emanaldia Easo kaperak. 95.ean Easo abesbatzak sortua, Euskal Herriatik at Espainia eta Frantzia hainbat emanldi eskaini ditu Gregoriano Kaperak prestijioak.

Bestalde, ekainaren 9an, herriko musika ikasle eta dantza taldearen jaialdia izango dela aurreratzeko moduan gara. Hau ere, ekainean zehar luzatuko den Otso Festa '01en barne.

'Errekarteko koadernoak' liburuaren aurkezpena

Xabier Mendiguren beasaindar idazleak kaleratu berri duen 'Errekarteko koadernoak' liburuaren aurkezpena egingo da, ekainaren 13an, Udaletxeko Batzar Aretoan, arratsaldeko 7,30etan. Udal Euskaltegiak antolatu du ekitaldia.


GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Maiatzak 26-27: Arriola.
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Ekainak 2-3: Urbizu.
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.



Ondo pasa festetan!



Goierriko Akademia integrala
Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN
ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- ✳ Unibertsitate-maila
- ✳ Batxilergoa
- ✳ DBH
- ✳ Selektibitatea

ESKOLA LAGUNTZA

- ✳ Maila eta arlo guztietan
- ✳ Banakako laguntza etxean

TAILERRAK

- ✳ Ortografia
- ✳ Irakurmena - idazmena
- ✳ Kalkulua, logika
- ✳ Testu komentaketa

Presta zaitez gurekin Goierriko Ingeniaritza Eskolan sartzeko!
Etorri informaz ioa jasotzera!

Etxebizitzak

salgai

➔ Ordizian ganbara salgai, berritua eta altzariekin. 943160930 - 687263126.

➔ Etxebizitza salgai Ordizian. 600704208.

➔ Ezkio-Itsason etxe adosatua salgai. 2 solairu (116 m²), garajea, estudioa (63 m²), terraza eta lorategia. 943725914 - 943 037609.

➔ Lizartzako herri erdian, bi pisuko etxea salgai. Ganbara eta beheko lokala ere bai. 656724734.

errentan

➔ Beasaingo pisu konpartitu batean logela alokatzen da. 20:00etatik aurrera deitu. 943027799 - 656761030.

Negozioak

errentan

➔ Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da. 606052907. Lan orduetan deitu.

Lurra

salgai

➔ Etxe bifamiliarra eraikitzeko partzela urbanizatua salgai, Goierriko eskualdean. 656726548. 20:00etatik 2:00etara deitu.

Garajeak

errentan

➔ Garajea alokatzen da Beasainen, Garmentia Otaola kalean. 943027693.

➔ Garajea salgai Beasainen, herri erdian. 943027947.

➔ Garajea alokatzen da Ordiziako Gipuzkoa kalean (Poligonoan). 943881053.

Bestelakoak

salgai

➔ Umeak eramateko motxila salgai. Berria. Vaude markakoa. 606217256.

➔ Negutegi edo inbernaderoak alokatzen dira. 943883157.

➔ Sofak salgai, plaza batekoa eta bikoa. Larruzkoak. Marroi kolorekoak. Erabili gabeak. 667515769 - 943887103.

➔ Bero akumulugailuak, 2 estatiko eta 2 dinamiko eta ur bero-gailua, Junkers markakoa, saltzen dira. 943187689.

➔ Ohea egiten den tresillo bat, bi butaka eta egongelako mahaia saltzen dira. 670422051.

➔ Joystic FX2000 scanner horizontala, Geniur Color Page Vi-vid FB307c, salgai. Oso gutxi erabilia. 630476054.

➔ Modema, kanpoko, ME01 RP56D/Sp salgai. Oso gutxi erabilia. 630476054.

➔ Musika klasikoko bilduma salgai. 78 Cd. 630476054.

➔ Nintendo 64 bideojokoa salgai. 5 jokorekin eta 'expansion pak'-arekin. 943885923.

➔ Hiru logelatarako altzariak salgai. Bat hiru altzariekin eta besteak lau eta bostekin. Logela bakoitza 60.000 pezetan. Egoera onean. 943450697.

➔ Pertsona ezinduek mugitzeko garabia edo grua salgai. 943886834.

➔ Estrenatu gabeko 14 pulgadako telebista salgai. 639402594.

➔ Kanpin denda salgai. 2 logela eta abantzearekin. 943191854.

➔ Gurdi-denda salgai, sukaldea eta hozkailuarekin. Egoera


ELKARTASUN DENDA



☎ 843 88 52 05
Kale Nagusia, 14 BEASAIN

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu beasaindar girtioi!

Garbitasunak
OXEPI



☎ 943 88 96 67 ZALDIBIA

IÑAKI AZURMENDI

Herri kirol erakustaldiak



BEASAIN

☎ 943 16 16 74
☎ 616 44 66 22

Jai zoriontsuak denoi!



MARIAN LARREA

BARNE DEKORAZIOA

ERREFORMAK
PROIEKTUAK
ESZENOGRAFIA

☎ 943 88 58 48 - 943 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

onean. 175.000 pezetan. 943889172,

➡ Emakumezkoen mendiko txirrindua salgai. 943191854,

➡ 5 lanpara salgai. 943191854,

➡ Besaulkiak (silloiak) salgai. Bata, ohea egiten dena, 3 plazakoa eta beste biak, banakakoak. 50.000 pezetan. 19:30etik aurrera deitu. 943161355.

➡ Mendi bizikleta, Orbea Sherpa, salgai. 25.000 pezetan. 943886532. Beñat. Arratsaldeko 7etatik aurrera deitu.

erosi

➡ Autoarentzako bigarren eskuko erremolkeak erosiko nuke. 656752364.

Ibilgailuak

salgai

➡ Renault 19 GTD salgai. SS-AK. Txuria. Ondo zaindua. 686476095.

➡ 7 lagunentzako auto-karabana salgai. 18 urte ditu. Bulego orduetan deitu. 943882695.

➡ Renault 11 GTL salgai. Ondo zaindua. Prezio oso interesgarria. 630493844. 19:30etik aurrera deitu.

➡ Renault Laguna autoa salgai SS-AY. 636918273.

➡ Opel Kadett autoa salgai. Beltza. Ondo zaindua. SS-AC. Prezio interesgarria. 606061165. (Joseba).

➡ Renault 9-a salgai. SS-W. Oso merke. 943723504.

➡ Transporter furgoneta salgai: 2,4, Kombi, diesela eta kristalduna. Aire egokitua eta erremolkeko engantxea ditu. 943651671 - 666615766.

lana

eskaerak

➡ Zaldibiako emakume bat behar da goizean 11etatik 3etara etxeko lanak egiteko. 943889667.

➡ Emakumea behar da etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. Egun erdiko lana. 943887484.

➡ Ordizian zerbitzari euskalduna behar da tabernan lan egiteko. 943160471.

➡ Ormaiztegin jate-txe txiki baterako zerbitzaria behar da, txandaka, bazkariak edo afariak ematen lan egiteko. Asteburu osoak libre, hileko bi larunbat izan ezik. Ordutegi ona. 943882893.

➡ Neska euskalduna behar da Beasainen, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943887652. 14:00etatik 16:00etara deitu.

➡ Ormaiztegiako jate-txe txiki baterako larunbat gauetan garbiketari lanetan lagutzeko pertsona bat behar da. 943882893.

➡ Zaldibian asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Ahal dela esperientziaduna. 943880044.

➡ Neska edo emakume bat behar da Olaberrian (kaskoan) umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 627411766 (19:00etatik aurrera deitu).

➡ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. 943886243.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

DEKORATZAILE LAGUNTZAILEA
Goierri. Erref. 51147/2

5 PROMOTORA
Beasainen. Erref. 52405/1

TXARKUTERIKO LAGUNTZAILEA
Tolosan. Erref. 52327/2

DELINEATZAILEA
Tolosan. Erref. 51648/2

ZENTRU MEKANIZATUKO PROGRAMA PRESTATZAILEA
Urola Garaian. Erref. 48333/3

ARRAINDEGIKO LAGUNTZAILEA
Tolosan. Erref. 52329/2

INTERNETEKO TEKNIKARIA
Donostian. Erref. 51764/3

ADMINISTRATIBOA
Donostialdean. Erref. 51984/3

IGERILEKUKO BEGIRALE-SOROSLEA
Garden. Erref. 52068/1

3 URETAKO SOROSLE
Gasteizko aintziran. Erref. 52108/1

LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO 2 TEKNIKARIA
Iruñean. Erref. 52522/1

SUKALDARIA
Vianan (Austria). Erref. 52409/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

zure etsairik gaiztoena izango da



zuretzat prestatu ditugun modelo berriak ezagutzen dituzunean



amets
ATSEDENERAKO SISTEMAK



NAGUSIA, 40 - C.P. 20200 - BEASAIN - TEL/FAX: 943 88 68 51

SWISSFLEX®
GOIERRIKO BANATZAILE OFIZIAL BAKARRA

Oheak eta osagaiak
Zorro nordikoak
Burukoak
Izarak
Koltxoi-estalkiak
Alfonbrak
Kutxinak
Gortinak
Besaulki mantak
Luma edo fibrazko
nordikoak